

aizu!



Felix Zubia
Osasuna eta hitza

AZIAK DAKAR UZTA ZUBEROAN • LIAN MURALGILEA ARIN-ARIN • TXANTREAN, ARDI ARTEAN •
EPAIAK EPAI, IRUÑA-VELEIAKO LANAK AURRERA • GARABIDE: HIZKUNTZA GUTXITUAK AUZOLANEAN

Izan berria laguna

Susta ezazu euskarazko kalitatezko kazetaritza

BERRIALagun izateko aukerak

BERRIALaguna

Aukeratu kuota:

Hilean 10 €

Urtean 100 €



BERRIALagun harpideduna*

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik igandera, **hilean 37 €**

Asteartetik ostiralera, **hilean 23 €**

Ostiraletik igandera, **hilean 22 €**

Asteburukoa, **hilean 15 €**



BERRIALagun iragarlea

Aukeratu kuota:

Urtean 80 €

Urtean 150 €

Urtean 225 €

Urtean 300 €

Urtean 500 €

Urtean 1000 €



Ikusi BERRIALagunen abantailak

Koordinazioa: Eñaut Mitxelena

Erredakzioa: M. Egimendi, Eñaut Mitxelena

Kolaborazioak: Joxe Rojas, Juanjo Olasagarre, Gotzon Hermosilla, Usoa Alberdi, Arkaitz Almortza Muro, Aitor Fdez. de Martikorena, Igor Elordui, Alaitz Andreu, Txomin L. Aramaio, Mikel Arrillaga, Esti Lanao, Jon Rejado, Arrate Beristain Uriarte, Raul Perez Martinez, Allande Sokarros

Hizkuntz arduraduna: Usoa Alberdi

Argazkilariak: Amaia Zabalo, Iban Aginaga, Mikel Martinez de Trespuentes

Azaleko argazkia: Amaia Zabalo

Maketazioa: Eba Arratibel

Komikiak: Eñaut Aiertzaguenena Bravo, Zaldi Eroa

Administrazioa: Juanma Etxebeste

Publizitatea:

Xabier Garmendia / Tel. 607 596 112
aizupubli@ae.eus

Egoitza nagusia:

Iztueta kalea 3, behe / 20001 DONOSTIA
Tel. 607 638 660 / aizu@ae.eus

Administrazioa eta harpidetzak:

Iztueta kalea 3, behe / 20001 DONOSTIA
Tel. 607 532 846 - Faxe. 943 32 76 09
juanma-e@ae.eus

Inprimaketa: Antza

L. G. BI-242881
ISS 1132-1709

AIZU!k ez du nahitaez bat egiten kolaboratzaileen iritziekin. Erantzukizuna egileena da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK)
DIRUZ LAGUNDUA



Arkaitz ALMORTZA

24 Landa, hirian

ale honetan



28 Zuberoako
(h)AZIA



Gartzen GARAI0

19 Kitxuekin hizkuntza lankidetzan



Jon REJADO

26 Emankor jarraitzen du Iruña-Veleiak



izenak



KAI NAKAI


Durangoko Azokako II. Sormen Beka irabazi zuen artista gasteiztarrek sariaren lehen fruitua argitaratu du: *Kolpe* singlea, emakumeen boterearen isla, betidanik gizonaekoena izan den reggaeton plazan.



BOB DYLAN

Musikari eta poeta estatubatuarrek *Murder Most Foul* abestia argitaratu du, zortzi urtean kaleratutako lehen kanta berria. 17 minutu irauten du, eta John Fitzgerald Kennedyren hilketa du abiapuntu.

zokomiran



Arrunt¹ ezohiko

Lerrook leitzean, ezohiko ariketa egingo duzue: paperaren leuntasuna barik, hatzekin pantailaren gogortasuna ukitzen aritu. Ezohiko jarduna, beste asko bezala, ezohiko egoeran ohikoa bilakatzen ari zaiguna. Izan ere, COVID-19aren gaitzaren pandemiak hankaz gora ipini digu orain arte **arrunta**² genuen oro. Kaleak hutsik, jendea etxean, eta eguneroko kontu normaltzat jotzen ditugun ia guztiak erabat etenda, mundu osoa osasun krisi larrian ipini duen birusaren eraginez. Izugarritzko zurrunbiloa, bizitzako arlo guztiei eragingo diena eta behingoz "historiko" adjektiboa **taxuz**³ erabiltzeko aukera ematen duena, egoera ezezagun

honetara ekarri baitu mundua. Horrekin batera, beldurrak, ziurgabetasuna, zalantzak, ezinegona... baina baita elkartasuna, ekimena, laguntasuna eta une zail hauetara egokitze irudimena nahiz **prestasuna**⁴. Zuok, euskara ikasle eta irakasleok, horren adibide: euskaltegiak itxita, tinko jarraitzen duzue, teknologia lagun, euskara irakasten eta ikasten, egoerari aurre eginez. Geuk ere halaxe helarazi dizuegu apirileko AIZU!, sarearen bitartez, digitalki, berandu baino lehen paporean ere jasoko duzuen esperantzaz. Lehendik aldrebesa zen mundu are aldrebestuagoan, aldizkaria zuen eskura jartzeko.

- 1. Arrunt:** guztiz, erabat, zeharo.
- 2. Arrunt:** normal, ohiko.
- 3. Taxuz:** behar den moduan, zuzen, egoki.
- 4. Prestasun:** jarrera on, gogo.



IRATI ASTONDOA

Behin baino gehiagotan bigarren geratu ostean, Nerea Sorondo faboritoaren atzetik, aizkolari bizkaitarrak Urrezko Aizkorako banakako txapela irabazi du lehengo aldiz. Orain, Euskal Herriko txapela du jomugan.



AITOR FRANTSEENA

Surflari zarautzarrak Munduko Surf Egokituko Txapela bururatu du, Kaliforniako La Jollan. Ez du lehenengoa, 2016an ere izan baitzen munduko txapeldun. 2017an, berriz, brontzezko domina irabazi zuen.

HIRU LETRATXU Juanjo Ollasagarre



FOKU

Otto Pette

Beti izan da botere kontua, gaur bizi dugun **berrogeialdi**¹ honek ere boterearekin gertatzen eta gertatuko denari eragingo dio, Angel Lertxundik Otto Pette (Alberdania, 1994) nobelari erakutsi zigun bezala.

Argitaratu zenean, artefaktu literariotik due-na hondoa esaten zaion horri gailendu zitzaion; izan ere, hizkera hark izugarritzko ekarpena egin zion orduko euskarari, klasikoak (Axular, Tartas, Mendiburu, Kardaberaz) eguneratuta.

Baina, esan bezala, azal zoragarri horren hondoan botereari buruzko alegoria aurkituko du irakurleak, iazko 25. urteurrenaren gain egunerokotasunak gaurkotua: Otto Petteren oinarrian, **izurriak**² eragindako salbuespenezko egoerak dakarren munduaren kudeaketa biopolitikoak, koloka eta gainbehera dautza.

Izurria kudeatzeko buru izendatuko du Pette erregeak, eta irakurleak hirian zehar hartutako neurriak begien aurrean biziko ditu. Hasieran ezkutuan izan eta axolarik ematen ez bazazio ere, izurria pixkanaka-pixkanaka hiriaz jabetu, eta azkenean egitura sinboliko, politiko eta soziala desegingo du.

Salbuespenezko egoera horrek gizartearen **hezurdura**³ erakusten du, irauteko behar izan dituen tabuak, agerikoagatik ikusezinak izan diren egiak, ordena sozialaren konbentzioak... dena hantaz gora jarriko du. Bizitza pertsonala izendatzen dugun hori ere bai (ez dut *spoiler*-ik egin nahi). Pette lehen baino krudelagoa bilakatuko du izurriteak haren bizitza pertsonala jotzen duenean, eta, orduan, nobela paisaia ilunagoan barneratuko zaigu.

Lertxundi trebea izan zen gizartearen hezurduran izurriteak eragindakoa erakusteko orduan. Esaterako, erregea eta gortea landara ihes eginak daude ez kutsatzearen, hiritarrak gaixotasunaren mende utzita; hori egin izanak haien munduaren eta hiriaren amaiera ekarriko du. Bi eszena harrigarriki ongi kontatutakoetan, irakurlea ohartzen da erregea biluzik dagoela, Hans Christian Andersen ipuinean bezala.

Lertxundik hiriaren suntsipena eta geratutako den munduaren **malurra**⁴ erakusten dizkigu bukaeran. COVID-19 birusak eragingo al du gure mundaren suntsipena? Ez dut uste, baina aldaketa bai. Erregea biluzik dagoela ikusteko gai izango ahal gara!

esanak

“Ez gara heroiak, eta ez dugu zertan izan; beldurra ez dugu borrokatu behar, harekin bizitzen ikasi behar da”

ENRIQUE SARATXO, psikiatra

“Iraultza bakoitzaren aurretik plan operatibo bat eduki nahi baduzu, sekula ez da iraultzarik izango”

YANIS VAROUFAKIS, ekonomialaria eta politikaria, Greziako Ekonomia Ministro ohia

“Eliteek desberdintasuna areagotuko duten politikak onartzeko baliatzen dituzte krisialdiak”

NAOMI KLEIN, kazetari eta idazlea

“Sustrairik ez duzunean, badituztenak zaintzen eta bizi izaten dituzten herriek liluratu egiten zaituzte”

MAREK JACEK GRZESZOZYK, geografoa eta euskara ikasle poloniarra

“Hilabete ez, langile batzuek urtebete, bi urte edo hiru ematen dute konfinatuta”

MARLING CASTILLO, Gipuzkoako SOS Arrazakeriako Etxeko Langileen Taldeko kidea

“Gizakiak inoiz ez du izan hainbesteko baliabiderik, gaitasunik eta kapitalik. Beraz, inoiz ez da izan hainbesteko arduragabekeriarik”

PEPE MUJICA, Uruguaiako presidente ohia

1. Berrogeialdi: *cuarentena (es), quarantaine (fr).*

2. Izurri: *epidemia.*

3. Hezurdura: *esqueleto (es), squelette (fr).*

4. Malur: *zoritxar, zorigaizto.*

irritzia

eñaut





ARDOA Biba Ardoak, upategi txiki eta ekologikoei bidea emateko kooperatiba

Euskal Herriko hamalau ardo ekoizlek Biba Ardoak kooperatiba sortu dute. Hemengo hainbat sor-markadun **upategiak**¹ dira gehienak, txikiak, ardo ekologikoa egiten dutenak; fine-

an, kalitatea kantitateari **gainjartzen**² dioten ekoizleak, eta ardoa, besterik gabe negoziotzat baino, bizimodutzat jotzen dutenak. Hau da, merkatu interes **soiletatik**³ harago, ardoaren ekoizpen eta kontsumoa ingurumenaren zaintzarekin eta balio sozialekin lotzen dute. Filosofia horri **atxikita**⁴, upategi txikiek ardoa merkaturatzeko dituzten zailtasunak leuntzeko helburua du kooperatibak. Oraingoan, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Nafarroa Behereko hamalau upategi dira kooperatibako kideak, baina ateak zabalik ditu gehiagorentzat. Jatorriaren antzera, ardo motak ere ugariak dira: Errioxako, Arabako Errioxako, Irulegiko eta Nafarroako sor-markadun ardoak, eta Bizkaiko eta Getariako txakolinen sor-markadun ardoak, baita sor-markarik gabeak ere. Webgune honetan ezagut daitezke kooperatibaren filosofia eta katalogoa: bibaardoak.eus.

Kultur sorkuntzarako beka sortu du AEK-Korrikak



Euskal kulturako sormen lanak bultzatzeko eta 23. Korrikan Korrika kulturaleko ekitaldi nagusia **taxutzeko**⁵ xedearekin, *Korrika-AEK kultur sorkuntzarako beka* sortu du AEK-Korrikak. Hala, bi urterik behin, lan bat sarituko du AEK-k, Korrika kulturaren bitartez. Euskal sortzaile ororentzat, diziplina bakarra edo anitz **barnebildu**⁶ ahal izango dituzte lanek, eta haien emanaldiak agertoki edo plaza batean aurkezteko modukoak izan beharko dira. Horretarako, 23.000 euro jasoko ditu bekaren irabazleak. Lan aukeratua 23. Korrika kulturaleko egitarauaren barruan aurkeztuko da, 2022ko azarotik 2023ko apirilera, hain justu. Bekaren xehetasun guztiak Korrikaren atarian (www.korrika.eus) daude dagoeneko, proposamenak aurkezteko epealdia, besteak beste: 2020ko urritik 2021eko urtarriera. Beka honen bitartez, kultur sorkuntzari bultzada eman nahi dio Korrika-AEK-k, eta, aldi berean, Korrikako kultur eskaintza guztiz berrituko du. Lehenengoz, 23. Korrikan aurkeztuko da bekaren emaitza. Ondorioz, tarteko edizioan, 22. Korrikan, kultur eskaintza beste era batean osatuko da, elkarlana bultzatuz eta Euskal Herrian martxan izango diren sorkuntza lanak Korrikan sustatuz nahiz leku gehiagotara eramanez.

1. **Upategi:** bodega.

2. **Gainjarri:** besteren gainean ipini.

3. **Soil:** simple.

4. **Atxiki:** heldu.

5. **Taxutu:** antolatu.

6. **Barnebildu:** barne hartu, bildu.

7. **Denborale:** eguraldi txar, ekaitz.

8. **Higadura:** erosión (es), érosion (fr).

9. **Apaldu:** murriztu, gutxiagotu.

10. **Leudeke:** egongo lirateke.



Benjamin VOROS/UNSPLASH

INGURUMENA Mende bukaeran, zenbat hondartza geratuko dira munduan?

Itsasertzeko habitat ohikoenetakoak dira areazko hondartzak; munduan, kostaldean % 30 betetzen dute. Bada, klima larrialdiaren eraginez, munduko areazko hondartzen erdiak desagertuta izango dira mende honen amaierarako. Itsasoaren mailaren igoerak eta **denboraleen**⁷ areagotzeak eragingo lukete hondartzen desagertzea, Europako Batzordeko Joint Research Centre erakundeak eginiko ikerketa batek ondorioztatu duenez. *Nature Climate Change* aldizkarian argitaratutako ikerketa egiteko, 1984 eta 2015 bitartean kostaldean izandako aldaketak aztertu dituzte, satellite bidezko irudien bitartez. Eraitza, goian aipatua: 2100. urterako, baliteke munduko hondartzen erdiak desagertzea. Gainera, berotegi efektua eragiten duten emisioekin lotu dute hondartzen **higadura**⁸: emisioak handitu ahala areagotzen da higadura. Horrenbestez, haiek murriztuz gero, hondartzen desagertzea ere **apaldu**⁹ egingo litzateke, ikerketaren egileen ustez. Herrialde kaltetuenak zein izango liratekeen ere aurreikusi dute. Esaterako, Australiako kostaldeko 12.324 km **leudeke**¹⁰ arriskuan (hondartzen % 40), izan litekeen egoerarik onenean; Kanadan, 9.557 km; Txilen, 5.471 km; Mexikon, 4.119 km; Txinan, 4.084 km; AEBetan, 3.908 km; Argentinan, 3.668 km.; eta Iranen, 3.654 km. Beste zenbait herrialdek arrisku biziagoa dute, hala nola, Gambiak, Surinam, Beninek, Irakek, Pakistanek, Gineak, Ginea Bissauk... Hondartzak balio ekologiko handiko ekosistemak dira, eta enbaten eta urakanen kontrako babes garrantzitsuak. Gainera, herrialde askotan balio sozioekonomiko eta turistiko handia dute, jende ugari bizi baita halako eremuetan. Hortaz, kaltea handia izango da, ikerketaren aurreikuspenak betetzen badira, bederen.



SOINU PROFESIONALA
MEGAFONIA

945 226 977 - GASTEIZ

LIZARRALDE SOINVA
TXALAPARTA, S.L.



zerbitzuak
erakargarri



Enbeltran kalea, 6
20003 DONOSTIA
TEL.: 943 42 74 05



GANDARIAS

31 de Agosto, 25 • DONOSTIA • Tel: 943 42 63 62
www.restaurantegandarias.com



**ARGIBIDE
ETA
ERRESERBAK**
TL.: 948 521 351
info@campingacedo.com

Los Arcos errepidea z/g
ACEDO (Nafarroa)
www.campingacedo.com

Azedo Kanpina

- Lizarraldean kokatuta, Lokiz eta Kodes mendikate eta Lana, Ega eta Berrotzako ibarren artean.
- Urte osoan dituzu eskura gure bungalow orosoak, 5 laguntzat, egongela, sukaldaria, berogailua, bainua eta dutxa, eta erabat hornituta.
- Basabideak, puentinga, ibilbideak zaldi gainean, trenbide zaharretan.



GARAGARDOA

Euskal garagardoek beren sor-marka dute

Aspaldiko nahia beteta, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako garagardo ekoizleek berezko **zigilua**¹ izango dute hemendik aurrera: *Euskal Garagardoa- Basque Beer*. Eusko Jaurilaritzak bultzatu du egitasmoa, eta, oraingoz, garagardoa Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten hamabi ekoizleek hartuko dute parte: Baias, Basabe, Boga, Etxeandia, Gar & Gar, Maiken Brewery, La Salve, Olañeta, Olbeam, Pagoa, Txorierrri eta Urban Beer. Sagardorako eta ardorako sorturiko sor-markak **aintzat hartuta**² eratu dute. Hala, bi baldintza bete beharko dituzte zigiludun ekoizleek: garagardoa EAEn ekoiztea eta botilaratzea. Modu horretan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ekoitzi eta botilaratzen diren garagardoak "euskal" adjektiboa baliatu bai, baina guztiz bertan egiten ez diren marketatik bereizi nahi dituzte. Nolanahi ere, ekoizle gehiagok ere baliatu ahal izango dute sor-marka, oinarritzko baldintzak betez gero. Aurrerantzean urrats gehiago egiteko asmoa ere agertu zuen Euskal Garagardoaren Elkarteak, sor-markaren aurkezpenean. Esaterako, etorkizunean garagardoa euskal osagaiekin egiteko xedea dute, hau da, bertan ekoiztako **legamia**³, lupulu eta maltarekin.

INDIA

Semaforoetan, hobe klaxonik ez jotzea

Zirkulazioak eta, zehazki, auto gidarien klaxon hotsek sortzen duten zarataren aurkako neurri bitxia hartu dute Indiako Mumbai hirian: semaforo gorrien aurrean, zenbat eta gehiago jo **turuta**⁴, gidariekin itxaronaldi luzeagoa izango dute. Zirkulaziorik txarreneko munduko hirien artean dago Mumbai, eta, ondorioz, trafiko kaotikoak arazo ugari eta larriak eragiten ditu. Tartean, kutsadura, bai eguratsarena baita zaratak eragindakoa ere, biak kaltegarriak hiritarrentzat. Turuta **harrabotsari**⁵ aurre egiteko, soinu **neurgailuak**⁶ ipini dituzte zenbait bidegurutzetako semaforoetan. Neurgailuok 85 dezibelek gorako zarata antzemanen gero, semaforoan itxaron beharreko denbora bikoiztu egiten zaie gidari turuta jotzaileei. Hain justu, itxaronaldi denbora erakusten duten kontagailuak ere badituzte semaforo horiek, hortaz, itxaron denbora nola luzatzen zaien ikus dezakete gidari **zalapartariak**⁷. Lehen hiru semaforoak 2019. urtearen amaieran ipini zituzten, probatzeko. **Antza**⁸, arrakasta izan zuten, urtarilean beste hamar ipini baitzituzten, eta Indiako beste zenbait hirik ere interesa agertu dute.



Shreyas KAMBLE/UNSPLASH

AUZOLANA

Errigoraren olio banaketa, atzeratua

Martxoan iritsi zen, udaberriarekin batera, Errigora egitasmoaren *Eskutik eskura* kanpaina, Nafarroako hegoaldeko nekazaritza produktuak dastatzeko eta, bide batez, eremu hartako nekazariak eta euskalgintzari laguntzeko aukera ematen duena. Zuetako askok ondotxo jakingo duzue, kanpaina baliatuta oliba olio edota **askotariko**⁹ kontserbak eskatuko zenituztelako. Tamalez, COVID-19aren krisiak zuzenean eragin dio askoren arteko elkarlanean oinarritutako egitasmoari. Hala, eta gaixotasunaren hedapena **saihesteko**¹⁰ neurriak betetzeko, oliba olioaren banaketa ezin izan da egin. Hasiera batean, eskariak martxoaren amaieran eta apirilaren hasieran banatzekoak ziren. Haatik, eta pandemiaren kontrako neurriak indarrean egon bitartean, oliba olioaren banaketa **eten**¹¹ egin dute. Data berriak ez dute jakinarazi, egungo egoera aldatu bitartean ez baitago **deus**¹² zehazterik. Nolanahi ere, Errigora jakinarazi du salbuespenezko egoera hau aldatutakoan banaketarako daten berri emango diela eskatzaile guztiei. Kontserbak oliba olio baina beranduxeago banatzekoak zirenez, zain jarraitu beharko dugu. Nahitaezko itxaronaldia amaitutakoan, baina, gozoagoa izango da unea Errigoraren produktuei esker...

ERRIGORA



FINLANDIA

Sami herriak jasandako bazterketa ikertuko du batzorde batek



Urte luzez, samiak baztertuak izan dira. Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusiako Kola penintsulako iparraldean bizi dira, eta herrialde guztietan **nozitu**¹³ izan dute, historikoki, bazterketa. Finlandian, adibidez, beren hizkuntzaren (samiera) kontrako erasoak, eskola **bereizketa**¹⁴, derrigor kristau bilakatu beharra, diskriminazioa eta errepresioa, beren kulturaren bazterketa, beren lurraldea baliatzeko debekua... Hots, bigarren mailako herritarrek izan dira samiak urte luzez, eta, XX. mendeko 70eko hamarkadara arte, finlandiar kultura **bere egite-
ra**¹⁵ behartuak izan ziren. Ordutik, pixkanaka, haien egoera hobetu egin da; esaterako, sami parlamentua badute egun. Era berean, Finlandiako Gobernuak mendeetan eragindako bazterketa aitortu du, eta horretan izan duen **erantzukizuna**¹⁶ onartu. Orain, iraganean gertaturikoa argitzeko batzordea eratu dute: Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea. Finlandiako Gobernuak jarri du abian, eta samien parlamentuak ere **oniritzia**¹⁷ eman dio. Batzordeak helburu zehatza izango du: samiek iraganean **pairatutako**¹⁸ bazterketa ikertzea eta jarrera haietatik ikastea. Samien parlamentuak azaldu duenez, iraganeko diskriminazioa ikertu ez ezik, bazterketa horrek samiengan oraindik eragiten duen trauma onartu eta aztertu ere egin beharko du. Finlandian eratutako batzordea ez da eremu hartan lehena. Norvegian ere antzekoa sortu zuten, eta 2022an jakinaraziko ditu orain artean bildutakoaren ondorioak. Suediako Gobernuak ere azaldu du antzeko batzorde bat sortzeko asmoa, nahiz eta oraindik ez duen urrats zehatzik egin.

1. **Zigilu:** marka.

2. **Aintzat hartu:** kontuan hartu.

3. **Legamia:** levadura (es), levain (fr).

4. **Turuta:** klaxon.

5. **Harrabots:** zarata, zalaparta.

6. **Neurgailu:** neurtzeko makina.

7. **Zalapartari:** zarata ateratzen duena.

8. **Antza:** dirudienez, badiardi.

9. **Askotariko:** mota askotako.

10. **Saihestu:** ekidin, zerbait gertatzea eragotzi.

11. **Eten:** bertan behera utzi, gelditu.

12. **Deus:** ezer.

13. **Nozitu:** sufritu, pairatu, jasan.

14. **Bereizketa:** distinción (es), distinction (fr).

15. **Nork bere egin:** onartu, barneratu.

16. **Erantzukizun:** responsabilidad (es), responsabilité (fr).

17. **Oniritzi:** adostasun, aldeko iritzi.

18. **Pairatu:** nozitu.



NAGUSIA, 6

DONOSTIAKO ALDE ZAHARRA

TEL. 943 421 074

info@galparsorookindegia.eu

<http://galparsorookindegia.eu>



Ivan ALEKSIC/UNSPLASH

OSASUNA Airearen kutsadurak hiru urtean laburtzen du bizi itxaropena

Pertsonon bizi itxaropena murrizten duten arrazoen artean, **eguratsaren**¹ kutsadurak eragin handiagoa du tabakismoak, gerrek eta malaria edota GIBaren moduko gaixotasunek baino. Hala, airearen kutsadura desagertuz gero, munduko biztanleen bizi itxaropena 3 urte luzeagoa izango litzateke, *Cardiovascular Research* **agerkarian**² plazaraturiko ikerketa batek dioenez. Airearen kutsatzen duten hainbat iturri aztertu dituzte Alemaniako Max Planck Institutuko eta Mainzeko Unibertsitate Zentro Medikoko bi ikertzailek; zehazki, zein eragin duen airearen kutsadurak sei gaixotasun motatan, batik

bat arnas aparatuko eta bihotzeko gaixotasunetan. Ikerketaren arabera, 2015ean 8,8 milioi heriotza goiztiar izan ziren munduan aire kutsaduraren eraginez; horrek, batez beste, bizi itxaropenaren 3 urteko murrizketa erakutsiko luke. Beste heriotza **zioekin**³ ere alderatu zituzten datuok: 2015ean, 7,2 milioi hildako eragin zituen tabakismoak (batez beste, 2,2 urteko murrizketa bizi itxaropenean), milioi bat GIBak (0,7 urteko murrizketa), 600.000 hildako malariak eta antzeko eritasunek (0,6 urte gutxiago); eta 530.000 hildako mota guztietako indarkeriak, gerrak barne (0,3 urte gutxiago). Lekuaren araberrako kalkuluak ere egin zituzten. Hala, Asian 4 urte labur daiteke bizi itxaropena; Afrikan, 3,1 urte; Europan, 2,2 urte; eta Ipar Amerikan, 1,4 urte. Hori bai, kutsaduraren ezaugarriak ere bereizi zituzten: **saihets**⁴ daitekeena (gizakiak eragindakoa, batez ere erregai fosilen ondorioz) eta saihetsezina (adibidez, basamortuko hondarra edota baso suteen kea). Bizi itxaropena gehien murrizten duena saihets daitekeena da: hildakoen bi hereni eragin zien 2015ean. Hori guztia kontuan hartuta, ikerketaren egileek azaldu dute "*airearen kutsaduraren pandemia*" bizi dugula, eta arreta handiagoa eskaini behar zaiola arazoari.



KORONABIRUSA Erne informazio faltsuekin!

COVID-19ak sorturiko krisiaren **zurrumbilao**⁵, sare sozialak funtsezkoak bilakatu dira, dela etxean sartuta diren herritarren arteko harremanei eusteko, dela informazioa jaso eta zabaltzeko. Alabaina, eta beste hainbat gaiekin gertatu ohi den moduan, *fake news* edo albiste faltsuak eta gezurrak zabaltzeko tresna era badira, askotan jendearen borondate onaren kontura. Halakoei aurre egiteko, koronabirusari buruzko albiste faltsuak ezeztatzeko zerbitzua jarri du abian EITBk. Edozein herritarrek argazki, bideo edo albiste susmagarriren bat badu, *koronabuloak@eitb.eus* helbidera edota 600 900 454 WhatsApp zenbakira bidal dezake. Lantalde batek aztertu eta gezurra ala egia den jakinarazten du, *eitb.eus/koronabuloak* gunean. Bestela ere, sareko kontuetan aski **zaildua**⁶ den Joxe Rojas AIZU!ko kolaboratzailearen aholku batzuk ere ekarriko ditugu hona, halako mezu susmagarriak jasotakoan aintzat har ditzagun. Rojasen arabera, zenbait galdera egin behar dizkiogu geure buruari mota horretako informazioak jasotzen ditugunean: informazioaren iturria argi ageri da? Irudiek, izanez gero, badute sinadurarik? Lekua eta data ikus daitezke? Horrez gain, titularra ez ezik, albiste oso irakurtzea ere aholkatzen du, askotan ez baita egiten. Nork bidali duen aintzat hartzea eta **sen ona**⁷ deritzogun hori baliatzea ere gomendagarria da. Azkenik, *fake news* edo gezur horien inertziak etetea ere garrantzitsua da. Hau da, jasotakoa egia ote den ez badakigu, hobe da ez zabaltzea, eta, gainera, bidali duenari ere jakinaraztea.

1. **Egurats:** *aire, giro.*
2. **Agerkari:** *argitalpen, aldizkari.*
3. **Zio:** *arrazoi, zergati.*
4. **Saihestu:** *evitar (es), éviter (fr).*
5. **Zurrumbilo:** *vorágine (es), tourbillon (fr).*
6. **Zaildu:** *trebatu, prestatu.*
7. **Sen on:** *sentido común (es), bon sens (fr).*

Euskaltegiak itxita egon arren, euskaraz jo eta su

Udaberri berezi honetan, AEKren egoitzak itxita daude Euskal Herri osoan. Hori dela eta, ikasleen jarduerak didaktikoari urrunetik eusten ari zaio AEK, teknologiak ematen dituen aukerak **baliatuz**¹. Gainerako jardueretan ere (mintzapraktika, normalizazio egitasmoak, itzulpen eta zuzenketak, AIZU! aldizkaria, 22. Korrikaren prestaketa...) hainbat baliabide jarri dira martxan, lanak ez eteteko. Edo-

zertarako, beharra duen oro jar daiteke harremanetan AEKrekin, www.aek.eus gunearen hasierako orrialdean dagoen formularioaren bidez edota telefono zenbaki orokorrera deituz: 673 200 100.

Esan bezala, eskolak emateko zein jasotzeko, telelanari heldu diote irakasleek eta ikasleek, hainbat baliabide erabilita: telefonoa, posta elektronikoa, sare sozialak, bideo deiak, Moodle edota Classroom plataformak... Horiek guztiek aukera ematen diete etxerako lanak eta, besteren artean, autoikaskuntzako materialak **trukatzeko**², baita zalantzak argitu eta ahozko ariketak egiteko ere.

Mintzapraktika saioak ere online ari dira egiten, gehienetan WhatsApp bidez. Hala, leku askotan lehiaketak eta tailer bereziak an-



Euskaltegiaren telelanari ari dira.

tolatu dituzte; adibidez, Uribe Butroren, origami tailerra guraso taldeekin. Izan ere, Berbalagun programa, praktikatze hutsetik harago, lagun artean egoteko modu bat ere bada, oso baliagarria bizi dugun egoeran. Sare sozialetan ibiltzeko, bestalde, **birusak#ezgaitumututuko traola**³ ere sortu dute.

Normalizazio egitasmoak bideratzen dituen Ahize zerbitzuan, ber-

rriz, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanez gain, beharrezkoa denean bilera birtualak egiten ari dira kanpoko bezeroekin nahiz **hornitzaileekin**⁴, horretarako prestatutako gunearen bidez. Eta Euskaratu itzulpen eta zuzenketa zerbitzuak ohiko moduan segitzen du lanean, telefonoz eta e-postaz, alegia, telelanetik asko du eta, berez, haren jardunak.

Dena den, bada ezinbestean atzeratu behar izan den ekimenik ere: apirilaren 4an egitekoa zen Esaera Zaharren Sopelako Txapelketa irailean egingo da. Izango duzue aurrerago horren berri, baina denbora tarte hau atotitz gehiago ikasteko aroetara dezakezue. Eutsi goiari!

Euskara ikasleentzat

Milaka ikasle zuen etxetan
isolatuta zaudete
baina euskara ez da hustuko
nahiz eta gelak ez bete
zenbat ahalegin, zenbat denbora
zenbat amets, zenbat neke
Zenbat "baneki", zenbat "bagina"
zenbat "ahal da", "baliteke"
Beste baldintza bat sartu zaigu
ez muga eta ez epe...
isolamendu oro hizkuntzen
azkena izan daiteke
baina ikasleak, zuek bai, zuek
nola utzi esateke
etsipenaren birusarentzat
antidotoa zarete

Jon Maia

Doinua: Martxa baten lehen notak



Barnetegitik, zein da zure oroitzapenik maiteena?

Bi lagunentzako bi eguneko egonaldia irabazi nahi Zugarramurdiko Graxiana aterpetxean? Eta bertara eramateko motxila? Bada, hasi buruari eragiten eta oroitu barnetegian egindako egonaldiak, eta pentsatu: denen artean, zein da zure oroitzapenik maiteena? Behin hori erabakita, har eza-zu parte AEK-k antolatutako duen sariketan, eta, agian, Zugarramurdin egonaldia egiteko zozketa irabaziko duzu.

Nola? Bada, gehienez minutu bateko grabazioa eginda. Zure ahotza entzun nahi dugu; beraz, audio edo bideo bidez egin dezakezu (sakelakoarekin). Bidali audioa maiatzaren 24a baino lehen, WhatsApp edo Telegram bitartez, 630477400 telefono zenbakira edo aek.komunikazioa@gmail.com helbidera, eta AEK-k kontakizun onena sarituko du. Gogoratu galdera honi erantzun behar diozula: "**Barnetegitik, zein da zure oroitzapenik maiteena?**" Lehiaketa irekia da, barnetegi batean izan den edonork har baitezake parte, baina ez du balio oroitzapena zure etxea barnetegi bihurturiko garai honetakoak izateak!



1. **Baliatu:** erabili.

2. **Trukatu:** elkarri eman.

3. **Traol:** #.

4. **Hornitzaile:** proveedor, -a (es), pourvoyeur, -euse (fr).

SOSTENGATU INFORMAZIO BURUJABETZA BULTZA KAZETARITZA INDEPENDENTEA



Nahi duzun ekarpena
egin dezakezu

www.argia.eus 943 37 15 45

EGIN ZAITEZ ARGIAKOA!

argia.eus/eginargiakoa

Lian Muralgilea

«Hormak herriarekin mintzatzen dira»

Horma-irudiak¹ egiten ditu Lian Muraless Lian-ek (Boston, AEB, 1981); hain zuzen, Leitzako Atekabeltz gaztetxeko pareta batean egin duen bat munduko ehun mural onenen zerrendan paratu zuen, iaz, Eskoziako **StreetArt360** atari digitalak • Sortzez estatubatuarra, gaztetan Katalunian bizi izan zenez, katalantzat du bere burua • Munduko herrialde ugarian ikus daitezke bere lanak, baita Euskal Herrian ere • 2017tik, Atxondon bizi da • Ingelesa, katalana, gaztelania eta italiara hitz egiten ditu, baita euskara ere, AEKn, “Mirenekin, inoiz izan dudak irakasle onenetakorekin” ikasten ibili ostean



Zure horma-irudi bat munduko 100 onenen artean. Pozik?

Bai! Izugarri pozik! Ohorea da. Artista on askoak daude zerrenda horretan, eta pribilegiatua sentitzen naiz.

Horma handia, lan handia?

Nire ustez, zenbat eta handiagoa, orduan eta hobe. Asko gustatzen zait hormetara igotzea. Horrez gain, itzela da irudia amaituta dagoenean ikusi eta pentsatzea: “Hau egin dut!” Askotan, ez dut sinesten.

Nola egiten zaio aurre horma hutsari?

Konfiantzarekin eta beldur barik. Nire ustez, bai hormetan bai bizitzan beldurra **tu egiten**¹ ariko bazina bezala bota behar da.

Kaleaz gain, bestelako euskarriren² baten marrazten al duzu?

Koadroak oso gutxitan egiten ditut, nahiago dut kalean egon.

Zergatik erabaki zenuen honetan aritzea?

Hormak herriarekin mintzatzen direlako, eta elkarriketa sortu nahi dut ikusleekin.

Bizi daiteke honetaz?

Noski, baina gauza gutxiarekin bizi naiz. Nire ustez, hobe da gutxiarekin bizi eta pozik egotea, gustuko ez duzun zerbait egin eta asko edukitzea baino.

Hormak margotzeak utzi al dio gaizki ikusitako zerbait izateari?

Bai eta ez. Hasieran, espraiekin hormak margotzea gaizki ikusia zegoen, baina hormak margotzea Neolitikoa bezain zaharra da. Haitzuloetako pinturak, adibidez. Kaperara Sixtinoa **laudatu**³ egiten da, eta hura ere murala da; alde bakarra materiala da.

Zure irudietan, pertsonak eta gorputz atalak agertu ohi dira. Gizakia inspirazio iturri?

Espazio publikoa ustez “perfektuak” diren gorputzez beteta dago. Ahalegina egiten dut nire lanek gorputz mota oro barnera dezaten, oso garrantzitsua iruditzen zait.

Euskal Herrira etortzean, argi zenuen hemen gozatzeko hitz zenuen? Ikasi behar zenuela?

Noski! Euskal Herrian bizi naiz. Inportantea da bizi zaren tokiko hizkuntza hitz egitea... Adibidez, Txinan biziko banintz, txinera ikasiko nuke.

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du?

Noski. Eta irudi batek mila pertsona baino gehiago mobiliza ditzake.

Teknologiaren garaian, horma-irudiek garrantzia galdu al dute?

Ez, orain muralak gehiago ikus daitezke, denak sofatik, kar-kar! Horma-irudi asko daude munduan, eta denak aurrez aurre ikustea ezinezkoa da. Teknologia berriekin, ordea, posible da.

EÑAUT MITXELENA

Di-da batean

Zerk alaitzen dizu eguna?

Eguzkiak.

Eta tristatu? Berdintasun ezak.

Zerk eragiten dizu barrea?

Umore britainiarrak.

Eta negarra? Hondartzan

hildako ume errefuxiatuek.

Zerk haserre arazten zaitu?

Ezintasunak.

Bizio bat: txakolina, **kur-kur**⁴!

Zer izan nahi zenuen

txikitan? Pozik bizi den norbait.

Eta orain, zer ez zenuke

izan nahi? Aspergarria.

Artista bat: Ramon Casas.

Bereziki gogoan duzun lan

bat: Caravaggioren *Bacchus*

ikusi nuen lehen aldia beti

izango dut gogoan.

Bereziki gogoan duzun zure

lan bat: nire lan onena, nire

ustez, Leitzako gaztetxekoa da.

Non marraztuko zenuke

gustura horma-irudi bat?

Erroman.

1. **Tu egin:** *escupir (es), cracher (fr).*

2. **Euskarri:** *sopote (es), support (fr).*

3. **Laudatu:** *alabar (es), louer (fr).*

4. **Kur:** *je (es), ha (fr).*

Wellcome?

Ez, ongi etorri!

Azken urteotan, turismoa asko hazi da Euskal Herrian, eta eragin nabarmena izan du. Haren ondorio onen aldeko iritziak eta gurean nagusi den turismo ereduaren kalteak salatzen dituztenak **hizpide**¹ eta ika-mika iturri bilakatu dira. Ekonomia nabarmentzen dute, batik bat, aldekoek; turismo sektorearen interesak herritarren beharren gainetik jartzen direla salatzen dute, aldiz, kontrakoek. Lanpostu gehiago eta negozio berriak sortzen direla, ahotan batzuek; lan baldintza **kaskarrak**², etxebizitzaren prezioaren gorakada, turismoak jandako auzoak..., besteek. Alor asko izan dira mintzagai, baina beste zenbaiti ez zaie gehiegi erreparatu orain arte. Tartean, turismoaren eta euskararen arteko harremanari. Izan ere, euskarak leku eskasa izan du turismo jardunaren barnean, nahiz eta Euskal Herriko **bereizgarri**³ nagusietakoa, edo nagusia, izan. Gaiarekin kezkatuta, zenbait erakunde eta eragile hasiak dira kontua lantzen, sektoreak aintzat har dezan, euskara turismoaren zurrunbiloan gal ez dadin, eta bere lekua izan dezan. Badago zer egin eta zer aztertu, Euskal Herria ez da-eta soilik gastronomiaren eta paisaiaren herria, euskararen herria baizik, batez ere. **ENAUT MITXELENA, TXOMIN L.ARAMAIO, ESTI LANAO.**

1. **Hizpide:** mintzagai, hitz egiteko gai.
2. **Kaskar:** txar.
3. **Bereizgarri:** ezaugarri berezi.
4. **Irizpide:** *criterio* (es), *critère* (fr).
5. **Esanguratsu:** garrantzitsu, inportantzia handiko.
6. **Ildo:** norabide, bide.
7. **Egiteke:** egiteko, egin gabe.



“Turismoak euskararen izan dezakeen eragina guk euskarari ematen diogun balioaren arabera izango da”

2017an hasi zen UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea turismoaren eta euskararen arteko harremana jorratzen. Lanketa hori ematen ari denaz aritu zaigu Goizane Arana UEMAko teknikaria.

“Euskara eta turismoaren gaia, espresuki, orain arte ez da landu izan” dio Aranak, “baina egia da turista asko dituzten herrietan gaiaren gaineko kezka bazutela dagoeneko, eta hasiak zirela turismo eskaintzan euskararen presentzia zaintzeko eta euskara balioesteko bidea egiten. Batez ere, hizkuntza **irizpidei** lotutako lanketak egin izan dira”. Izan ere, turismoak eta euskarak elkarri eragiten diote. Hori bai, “turismoak euskararen izan dezakeen eragina guk euskarari ematen diogun balioaren arabera izango da, hein handi batean. Turismoa aukera ere izan daiteke euskara erakusteko, gure bereizgarri moduan saltzeko, eta horrek plus bat eskainiko dio bisitariari, haren esperientzia askoz ere osoa-goa izango baita. Era berean, gaur egun oso turistikoak ez diren udalerrri euskaldunetan turismoa sustatzeko aukera paregabea ere izan daiteke”. Nolanahi ere, “horren kontzientziarik ez badugu, arriskua egon daiteke justu kontrako egiteko: euskara ezkutatzeko eta erdarak nabarmentzeko...”

Kontzientziazio beharra behin baino gehiagotan aipatu du Aranak, horrek izango lukeen eragina gogoan: “Esaterako, turismo sektorea euskalduntzeko aitzakia ezin hobeia izan daiteke. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu turistekin harremanetan dauden profesionalak euskararen balioaren garrantziaz jabetzea. Gainera, kontuan izan behar dugu bisitarien ehuneko handi bat euskalduna dela, eta, askotan, ahaztu egiten dugu”.

UEMAk aztertua du zein jarrera duten bisitariak euskararekiko, Zumaian, Bermeon eta Leitzaan iaz eginiko inkesten bitartez. Emaitzak “oso positiboak” izan ziren, eta hainbat “datu **esanguratsu**” azaleratu zituzten. Esaterako, % 95ek erantzun zuten ez zutela inolako arazorik izan euskararekin. Euskara hutsezko errotuluei buruz galdetuta, % 45ek esan zuten eskertu egiten dituztela, eta ederra iruditzen zaiela tokikoari balio ematea. Bisitarien jatorriak ere datu adierazgarriak utzi zituen: galdetegia erantzun zutenen % 25 Euskal Herrikoak ziren, “eta

“Euskara ez da oztopo, gure identitatea indartzeko eta gurera datorrenari erakusteko abagune baizik”

“Tokian tokiko lanketak egin ditzakegu, eta eragin zehatza izan dezakete; baina erabaki politikoak funtsezkoak izango dira”

Espainiako estatutik etorritakoen erdiak bi hizkuntza ofizial dituzten erkidegoetakoak.”

Aranaren hitzetan, “emaitzek bide paregabea eman digute turismo eskaintzan euskararekiko eta balioetsi egin behar dugula nabarmentzeko, eta turismo sektorekoei esateko ez dagoela aitzakiarik euskara ez erabiltzeko, alegia, euskara ez dela oztopo, gure identitatea indartzeko eta gurera datorrenari erakusteko abagune baizik”.

Euskara turismoan barneratzeko, bi lan **ildo**⁶ nagusi aipatu ditu Aranak. Batetik, “oinarrizko” lana: “Gure eskaintza orotan, euskarara erabili: turismo bulegoetako informazio orrietan, errotuluetan, menuetan, hotel eta antzekoen eskaintzetan... Baita ahozko harremanetan lehen hitza euskaraz eginda”. Bestetik, euskara turismo eskaintzaren erdigunean jarri: “Euskara bera interesekoa izan daiteke bisitariak gurera etortzeko. Euskara izango da turismo eskaintzaren ardatza”. Adibideak ere eman ditu: “Euskara ikasten ari denarentzat, udalerrri euskaldunak praktikatzeko leku ezin hobeak dira. Turismorik ez dagoen tokietan, eta eremu oso euskaldunetan, euskara bera izan daiteke ardatza turismoa sustatzeko”.

Aranak dioenez, “guk garbi dugu lehenengo ildoak garrantzitsuak dela, euskararen presentzia bermatu egin behar delako. Baina bigarren ildoak, udalerrri euskaldun eta arnas-

guneetan garapen sozioekonomikorako aukera paregabea izan daitekeela uste dugu”.

Lan ildoak zehaztuak izan arren, bultzada eta erabaki politikoak erabakigarriak dira. “Tokian tokiko lanketak egin ditzakegu, eta eragin zehatza izan dezakete. Baina erabaki politikoak funtsezkoak izango dira. Ari gara norabide honetan bidea egiten, eta erakunde batzuk ari dira erakusten badaudela norabide honetan arraun egiteko borondatea eta asmoa”. UEMAko udalen “borondate eta nahia” jarri ditu adibide, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak turismo plan estrategikoan euskara ardatza izango dela jaso izana ere. Halere, “nahiz eta egia izan bidea egiten ari garela eta esperantzarako arrazoiak badaudela”, oztopoak ere badi-ra: “Oro har, euskararekiko kontzientziazio eta politika irmorik eza. Ez dugu benetan balioztat jotzen, ez dago agenda politikoaren erdigunean eta, hortaz, turismo estrategien erdigunean ere ez”. Turismo industriari dagokionez, halaber, bidea **egiteke**⁷ dagoela uste du. Hori bai, betiere folklorismoan eta antzekoetan jausi gabe. “Arrisku hori beti egon daiteke. Horregatik, guretzat oso garrantzitsua da lelo hutsetatik ekintzetara pasatzea. Praktika ezinbestekoa izango da”. Bide horretan, dagoeneko hasiak dira urratsak ematen: Urola Kostako Ongi etorri euskararen herrira kanpaina aipatu du, eta “beste hainbat garapen agentziarekin ere gaia lantzen hasiak gara, bi ildoetan eragiteko”.



Eskualdeko turismo zerbitzuek eta euskara zerbitzuek elkarlanean hausnartu eta garatutako estrategiaren emaitza da proiektua. “Kanpotarrei eskaintzeko izan dezakegun **balio erantsirik**¹ nabarmenena euskara eta gure nortasuna direla sinetsita, zergatik ez eraiki euskaren baitan ardaztutako turismo estrategia eraginkorra?” dio Salsamendik.

Bide horretan, elkarteak aliantzak bilatu ditu: “Gipuzkoako Foru Aldundiaren turismo estrategia ere ildo horretatik doa, eta UEMA ere aspalditik dabilenez gai honen gaineko hausnarketak egiten, ezinbestekoa ikusi dugu guztion arteko lankidetzaren proiektua bideratzea” azpimarratu du Salsamendik.

Hori bai, horrek ez du esan nahi turismo sektoretik orain arte ez diotenik erreparatu euskarari. “Gure eskualdeko turismo zerbitzuek beti izan dute, berez, euskararekiko begirunea. Oraingoan, baina, jauzi kualitatiboa eman nahi izan dugu eta, bat ere konplexurik gabe, euskara turismo eskaintzaren erdigunean jarri dugu”.

Urola Kosta eskualdea euskaldun-euskalduna da, eta oso turistikoa. Ezaugarri biak batu, eta bide honi ekin diote. Antolatzaileen berbetan, gune turistiko euskaldunek euskararen biziraupenean duten garrantziaz jabetuta landu da kanpaina. “Euskara eta euskal nortasuna izango ditu ardatz eskualdetik bideratuko dugun aurtengo turismo eskaintzak. Euskara bisitariekin partekatu nahi da, herri euskaldun batean egoteak dakarren esperientziaren goza dezaten”.

Aurretik **aitatu**² bezala, Urola Kostako udalerriak (Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) euskararen arnaguneak dira. Hortaz, ekimen honekin, bisitariei herri euskaldunak direla erakutsi eta gure hizkuntza ezagutze-ko aukera emango zaie.

Turistei euskara ezagutarazteaz gain, eskualdeko herritarrei begira ere egingo da lan. Izan ere, euskaldun gisara ahalundu eta euskarazko harremanak areagotzeko **abagune**³ bikaina izango da proiektua bertakotzat. Bereziki, turismo sektoreko eragileei begirako sentsibilizazio lana jorratuko da. “Horixe izango du oinarri proiektuak: sentsibilizazio lana” argitu du lehendakariak.

Horrela, turismo sektoreko eragileentzako saio labur eta praktikoak antolatu dituzte: eskualde osoan zehar, hiru astetan, 11



“Jauzi kualitatiboa eman nahi izan dugu euskara turismo eskaintzaren erdigunean jarrita”

Urola Kostako Udal Elkarteak proposamen berritzaile bat abiatu berri du: lehenengo aldiz, zuzen-zuzenean uztartuko ditu turismoa eta euskara. Elkartearen lehendakari Lourdes Salsamendi Goñik azaldu dizkigu kanpainaren nondik norakoak.

“Euskara bisitariekin partekatu nahi da, herri euskaldun batean egoteak dakarren esperientziaren goza dezaten”

“Europako hizkuntzarik zaharrena gurean bizibizirik dagoela erakustearekin batera, euskararen gaineko ikuspegi moderno eta erakargarria transmititu nahi zaie”

prestakuntza saio eskainiko dira. Kanpainaren nondik norako nagusiak azaltzeaz batera, formakuntza praktikoa ere eskainiko da.

Eskualdeko denda, jatetxe, taberna, osatu eta gainerako zerbitzuetako merkatari eta profesional guztientzako saioak izango dira, non, besteak beste, zerbitzua euskaraz eskaintzearen garrantziaz ohartaraziko da. Hainbat euskarri eta material ere banatuko da. Informazio saioez harago, prestakuntza praktikoa eskainiko dute, eta kanpainarekin bat egiteko gomendioak emango dira.

Behin sentsibilizazio lana eginda, hainbat euskarri prestatuko dira kanpotarrentzat, zuzen-zuzenean, euskara ahalik eta modurik erabilgarri eta praktikoenean gerturatzeko. Urola Kostako herrietara doazenei oinarriko nozio batzuk ematea ere bada asmoa: hitzak, zenbakiak edota esaldi laburrak. “Europako hizkuntzarik zaharrena gurean bizibizirik dagoela erakustearekin batera, euskararen gaineko ikuspegi moderno eta erakargarria transmititu nahi zaie”.

1. Balio erantsi: valor añadido (es), valeur ajoutée (fr).

2. Aitatu: aipatu, esan.

3. Abagune: aukera, parada.

“Munduan hizkuntza bakarra bagenu, turismoak berak ere zentzua galduko luke”

Itsaso Olaizola Azurmendik Kutxa Ekogunean lan egiten du, teknikari. Haren ustez, turismoaren sektorean euskara balioesteak turismoa aberastuko luke, eta horrek, era berean, hizkuntzaren garapenean eragin positiboa izango luke.

Ezin dugu ukatu gure lurraldean oso harro gaudela geure hizkuntzaz, euskaraz, eta lau haizetara zabaltzeko lan ikaragarria egin izan dugula beti. Horrez gain, erabilera indartzeko eta sustatzeko ahaleginak handiak izan dira, eta oraindik ere badira. Hala ere, lagungarria izan daitekeen eta oso kontuan hartzen ez dugun arlo batek ihes egiten digu: turismoa.

Itsaso Olaizola Azurmendi Kutxa Ekoguneke teknikaria da, eta, haren ustez, “euskarak gure lurraldean egiten den turismoa aberasteko aukera eman dezake”. Izan ere, gure eremu hurbiletik irten eta beste herri batera joaten garenean, bestelako esperientziak bilatzen ditugu, kultur eta natur **aniztasunean**¹ murgildu nahi dugu. Bisitatzen ari garen horrek eskaintzen digun guztia barneratu nahi dugu. “Tokiko kultura, hizkuntza, paisaia edota bizitzeko ohiturei balioa ematen badiegu, eta turismoari ere irekitzen badizkiogu, turismoa bera aberasten ariko gara”. Hau da, Euskal Herriaren etortzen diren turistek euskara erakusten badiegu, eta gure hizkuntzarekin harreman positiboa badute, beren herrietara itzultzen direnean euskararen sustatzaile bihurtzeko aukera izango da; hots, euskara gure lurraldeaz harago hedatuko da. Alderantziz ere gertatzen da: gurean egon bitartean, turistek beren kultura eta hizkuntzaren berri ematen digute. Hartu-eman sortuko da, turismo horri esker, eta horrek gure hizkuntzaren **garapenean**² zuzeneko eragina izango du.

Elkarreragin³ horretan, Itsaso Olaizolak hizkuntza ekologia kontzeptua proposatzen du, egungo hizkuntza krisiari erantzuteko: “Hizkuntza guztien garapen iraunkorra lortzea du helburu hizkuntza ekologiak, eta, mundu hobea eraikitzeko, munduko hizkuntza aniztasuna babestea eta tokiko hizkuntzak biziberritzeko neurriak hartzea proposatzen du”. Hiru aplikazio maila nabarmendu ditu teknikariak: ekologiaren begirada, ekologiaren ezagutza eta ekintzailetza ekologikoa. “Lehenengoa aniztasuna aberastasuntzat eta bizirauteko **giltzarritzat**⁴ jotzen duen bizi ikuskera da, baita hizkuntza aniztasunari dagokionez ere. Bigarrenak

“Zenbat eta kultura eta hizkuntza gehiago, orduan eta mundu aberatsagoa”

gogora ekartzen du ekologiaren zientzia eta ingurumenaren babeserako teknikak hizkuntzetara ere ekartzen dituela hizkuntza ekologiak, beste gizarte zientzietan egiten den gisan, hala nola, ekofeminismoan edota ekologia politikotan. Azkenik, ikuspuntu ekologikoa interbentzionista eta **ekintzailea**⁵ da, orekaren bilaketa etengabea du helburu, eta, horretarako, hizkuntza galerari aurre egiteko, hizkuntza gutxituak babesteko neurriak hartzea proposatzen du, hizkuntzen artean oreka izan dadin.”

Bestalde, Olaizolak dioen moduan, “gaur egungo garapen ereduak, hizkuntzak desgertzen ari dira, pobretzen ari gara, eta aniztasuna eta bizirauteko gaitasuna galtzen”. Horregatik, teknikaria aniztasun biologikoaz mintzatu da: “Bioaniztasuna aberastasuna da, eta zenbat eta bioaniztasun handiagoa izan, orduan eta aberastasun eta bizirauteko gaitasun handiagoak”. Antzera gertatzen da hizkuntzekin: “Zenbat eta kultura eta hizkuntza gehiago, orduan eta mundu aberatsagoa”. Hori dela eta, ez du uste gizaki guztiok hizkuntza bakar hitz egingo bagenu hobeto ulertuko genukeenik elkar; eta ekologiaren ikuspegitik begiratuta, hizkuntza aniztasuna bizirauteko giltzarria delakoan dago: “Hizkuntza da



kultura baten ezaugarriak **berezkoena**⁶, eta hizkuntza eta kultura bakoitzak mundua ulertzeko eta eraldatzeko modu bat ematen digu”. Hortaz, hizkuntza bakar izango bage-nu, “turismoak berak ere zentzua galduko luke”. **Aitzitik**⁷, euskara biziberritzea eta tokiko hizkuntzari balioa ematea globalizazioak eragiten duen homogeneizazio joera horri erantzuteko modu bat izango da, teknikariaren ustez.

Zentzu horretan, turismoak badu zereginik hizkuntzak, eta bereziki euskara, biziberritzeko bidean: “Turismo eredu iraunkorrak tokiko hizkuntzak eta kulturak unibertsalak bihurtu behar ditu, eta euskararen garapenerako aukerak eman”. Bestela, turismo ereduaren aztarna ekologikoa eta linguistikoa orekatzeko, “babes neurriak hartzea garrantzitsua izango da”, dio Olaizolak.

Izan ere, ez gaude ohituta geure burua euskaraz aurkeztera, eta turistekin ari garenean euskarari ez diogu duen balioa ematen. Tokiko hizkuntza gutxituek oso bestelako mundu ikuskera eskaintzen dute, eta turistek horixe bilatzen dute. Beraz, “euskara eman behar diegu turistek”. Nola? Hori ere argi du Kutxa Ekoguneke teknikariak: “Hizkuntza politika ez da soilik Euskara Sailean egiten; Turismo Sailean ere egin behar da”.

1. **Aniztasun:** dibertsitate, ugaritasun.
2. **Garapen:** desarrollo (es), développement (fr).
3. **Elkarreragin:** interacción (es), interaction (fr).
4. **Giltzarri:** gako, funtsezko osagarri.
5. **Ekintzaile:** activista (es), activiste (fr).
6. **Berezko:** propio, intrintseko.
7. **Aitzitik:** alderantziz, ordea, aldiz.

Zelan euskaraz?

Laura Re Lozano
(Murtzia, Espainia, 1995)

Re Lozanok bigarren ikasturtea du Pasaiako Txirrita AEKn.
Hasiera-hasieratik hasi zen, eta B2ko taldean ari da gaur egun.
Joan den urtean, lekukoa eraman zuen Korrikan.

“Neure burua euskaldun artean ikusten dut dagoeneko”

Nolatan iritsi zinen euskarara?

Orain dela ia bi urte etorri nintzen Pasai Antxora bizitzera, mutil lagunarekin (hura euskalduna da), eta orduan erabaki nuen ikastea.

Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Euskal Herrian nago, eta Euskal Herriko hizkuntza euskara da; niretzat, bizileku berriko ohiturak, hizkuntza eta kultura garrantzitsuak ziren. Uste nuen zailagoa izango zela, baina aitortu behar dut mutilaren bitartez euskarazko musika entzuten nuela hona etorri baino lehen, eta horrek asko laguntzen du: Berri Txarrak, Mikel Laboa...

Nolako prozesua izan duzu?

Mundu guztiak dio azkarra izan dela, baina nire ikuspegitik nahiko normala izan da. Nire ustez poliki-poliki eta ingurukoen iritzi azkar-azkar hasi nintzen ulertzen eta hitz egiten. Nire aitona-amonei gertatutakoa dut buruan: Frantziara joan ziren lanera, eta bi egunean frantsesez zenbatzen ikasi zuten. Batzuetan, lanetik atera eta euskaltegira etortzea gogorra izaten da, baina tira. Pentsatzen nuen askoz gogorragoa izango zela!

Zer izan da zailena zuretzat?

Maila altuagoan nago orain, eta ez dut nahi beste denbora etxean ikasteko. Hala ere, Internet bidez, elkarriketak, saioak eta beste ikusten ditut. Beharbada, ohikoa da nor-nori-nork zaila izan dela esatea, baina nire kasuan ez da bereziki zaila izan.



“Euskara egunero erabiltzen dut, esnatzen naizenetik”

Eta errazena?

Euskal Herria bera, Euskal Herriko kultura eta giroa bizi izatea izan da **samurrena**¹. Hizkuntza bat kultura bat da. Esate baterako, sagardotegi batean gauza pila ulertzen duzu. Horrez gain, niretzat iaz Korrikan parte hartzea itzela izan zen. Ez nekien ezta zer zen ere! Xalotasun osoz bizi izan nuen. Lekukoa hartu behar nuen tokian marra lu-

1. **Samur:** goxo, leun.

2. **Ortzi:** zeru.

rrean ikustean hasi nintzen urduri jartzen; azkar-azkar hasi nintzen korrika egiten, furgonetari pega-pega eginda, eta konturatzerako pankarta oso atzean utzia nuen!

Une barregarriak ere emango zizkizun ikasprozesuak...

Hitzak eta aditzak asmatu egin ditut, eta nahaste-borrasteak izan: gazta, gatza, gazte. Bestalde, Iparraldera joan nintzeanean, “*untsa*” entzuten nuen, eta ez nuen ulertzen; akaso ‘hutsa’ esan nahi zuela pentsatzen nuen...

Erabiltzen duzu?

Egunero, esnatzen naizenetik; euskara nire hizkuntza bihurtu da. Pena dut gurasoak urrun daudelako eta ez direlako jabetzen noraino iritsi naizen, eta zein garrantzia duen euskarak.

Gustuko hitza edo esamoldea?

Haridura azaltzeko, ‘Hara!’. Baserri giroan entzun izan dut, eta hitz samurra iruditzen zait. Haize eta **ortzi**² ere asko gustatzen zaizkit.

Trikimailuren bat?

Gogoia oso garrantzitsua da, eta euskarari gaztelaniarik ez balego bezala heltzea ere bai. Pazientzia ere behar da. Hanka sartzeko beldurra alde batera utzi behar da, eta kontuan hartu behar da euskaldunok hor gaudela laguntzeko. Pentsa, nik neuk neure burua euskaldunen multzoan ikusten dut dagoeneko!

RAUL PEREZ MARTINEZ

Hizkuntza lankidetza, munduko hizkuntza gutxituen arteko auzolana

Hamabost urte beteko
ditu aurten Garabide
elkartek, 2005ean sortu
baitzen hizkuntza
erdigunean jarriko zuen
elkarlanean jarduteko:
“Lankidetza esparru
ekonomikora mugatu ohi
dugu, baina komunitate
baten garapen osoa ez da
posible hizkuntza,
identitatea eta kultura
kontuan hartu gabe” dio
elkarteko kide Maialen
Sobrinok.



Egun, ia lau mila hizkuntza daude munduan hizkuntza hegemoniko batek **ordezkatzeko**¹ berehalako arriskuan. Horregatik, Garabidek uste du “*funtsezkoa*” dela munduko hizkuntza gutxituen arteko auzolana; hala, euskararen esperientziatik abiatuta, arduratzat du “*munduko beste komunitate batzuekin gure esperientzia partekatzea, eta besteen esperientziak sakonki ezagutu eta horietatik ikastea*”. Esperientzia truke hori da “hizkuntza lankidetza”.

Garabidek prestakuntza eta aholkularitza proiektuak garatzen ditu, Euskal Herrian zein nazioartean, hizkuntzen biziberritze estrategiei buruzko ezagutza teorikoak praktikara bideratzeko. Horretarako, besteak beste, euskalgintzako tokian tokiko **eragileekin**² aritzen da elkarlanean: “*Beti agertu izan dira gogotsu elkarlanerako, eskertzekoa da. Bisitak antolatzen ditugu haien lana ezagutzeko, eragile horiek gure prestakuntza saioetan irakasle aritzera gonbidatzen ditugu, hizkuntza komunitate desberdinei buruzko dokumentalak egin eta*

emanaldi birak antolatzen ditugu, hitzaldiak, erakusketak, mahai-inguruak...”. Sobrinoren **aburuz**³, hizkuntza lankidetzak **berebiziko**⁴ ekarpena egin ahal dio euskarari: “*Batetik, munduko hizkuntza gehienekin lotzen duela-ko, Tafallako edo Bilboko euskaldun batek bizi duena oso hurbil baitago Otavaloko kitxua batek bizi duenetik. Gure gazteek, klimari edo feminismoari dagokionez, adibidez, lortu dute tokiko erronkak nazioartekotzea, baina hizkuntzak jorratzeke*⁵ du bide hori. Bestetik, euskaldunoi badagokigu euskararen biziberritze esperientziak bildu, sistematizatu eta gizarteratzea, transmisioa bermatzeko. Altxor hori ezin da galdu”.

Etxean eta nazioartean

Garabide asistentzialismotik urruntzen saiatzen da: “*Lagunduak-laguntzaileak dinamika aldatu eta guztiok hartzaile-emaille bilakatu behar dugu, harreman duin eta aberasgarria sortzeko*”. Hala, hizkuntza gutxituen **aldagaia**⁶ **zeharkakoa**⁷ izatea al-

darrikatzen du, “*lankidetza proiektuek tokian tokiko hizkuntza eskubideak errespeta-tuko dituztela bermatzeko*”.

Elkartek aitortzen du ezin diela erantzun munduko hizkuntza gutxituetatik jasotzen dituen eskari guztiei, eta hainbat irizpide **lehenesten**⁸ ditu: “*Batetik, saiatzen gara komunitateak, tamainaren edo testuinguruaren aldetik, euskararen parekoak izan daitezen, gure esperientziak egin dezakeen ekarpena esanguratsua izan dadin. Bestetik, oso testuinguru eleanitzetan aritzen garenez, komunitate horiek inguruko beste hizkuntzekiko egin*

1. Ordezkatu: beste norbaiten edo zerbaiten lekua hartu.

2. Eragile: sustatzaile, agente, dinamizatzaile.

3. Aburuz: ustez, iritziz.

4. Berebiziko: izugarri, ikaragarri.

5. Jorratzeke: egin edo landu gabe.

6. Aldagai: variable (es), variable (fr).

7. Zeharkako: transbertsal.

8. Lehenetsi: besteren gainetik jarri, besteri baino garrantzi handiagoa eman.

Kitxuaren Biziberritze Estrategietarako Lehen Nazioarteko Ikastaroa

Urtarrileko azken asteburuan hasi eta martxoaren 15era bitartean, 8 asteburuan, garatu zen ikastaroa Ibarra (Ekuadorko iparraldean) hiriko Universidad Técnica del Norte delakoan. Irakasle lanean, 12 kitxua eta 6 euskaldun. Horietako bat AEK-ko kide Mertxe Mugika izan zen. Garabidek eta Sisaryk bideraturiko ikastaroan, helduen alfabetatze eta irakaskuntza moduluan ibili zen, “edozein hizkuntza biziberritzeko, ezinbestean jorratu beharreko arloan”.

Zer aurkitu zenuen han?

Berrogei kidek osatutako talde motibatu eta prestua, aste barruan lan egin ondoren asteburu osoa kitxuaren aldeko estrategiak lantzeko prest. Batzuek zazpi orduko autobus bidaia egin behar izaten zuten Ibarrra heltzeko, eta beste horrenbeste etxera itzultzeko; eta bi eguneko ostatua, haien lepo. Lehen egunean ikusi nituen ilusioak eta jakin-minak hunkitu egin ninduten, eta

hau bururatu zitzaidan: “Hemen dauden indarrarekin eta ilusioarekin, kitxuak aurrera egingo du!”

Nola hartu zintuzteten kitxuek?

Ezin hobeto! Oso eskertuta nago ikastaroko partaideok izandako harreragatik zein ostatua eskaini ziguten familiek emandako tratuagatik. Etxekoak bagina bezala hartu gintuzten, eta dena partekatu zuten gure-

kin. Beste irakasle euskaldun bat eta biok Otavaloko familia kitxua baten ostatuan egon ginen. Jabeen alabak ikastaroan parte hartu zuenez, hain zuzen ere nire moduluan, aukera gehiago izan genuen egoera hobeto ezagutzeko.

Zertan aldera daiteke kitxua euskararekin?

Gu duela 60 urte bezala daude, hori transmititzen ahalegindu ginen. Jon Sarasuaren esaldi hau sarri erabili genuen: “60ko hamarkadaren hasieran Euskal Herrian zabaldu zen ideia hau izan zen: edo gu gara euskaraz hitz egingo duen azken belaunaldia, edo gu izango gara euskara arlo guztietara zabalduko duen belaunaldia”. Bada, uste dut egoera horretan daudela: orain hainbat erabaki hartu ezean, haien hizkuntzarenak egin du.

dezaketen trakzio lana balioesten dugu, baten biziberritze esperientziak besteak **hauspotzeko**”. Ezinak ezin, nabaria da arlo honetan Garabideren jardunaren bilakaera: “2008an, bizpahiru aste programak antolatzen hasi ginen, munduko hizkuntza gutxituen aldeko aktibistak Euskal Herrian prestatu eta bueltan beren komunitateetan eragin **biderkatzailea**² izan zezaten”. Azken urratsa izan da Euskal Herrikan kanpo 120 ordu inguruko ikastaro trinkoak antolatzea, hizkuntza biziberritzeko estrategiei buruz: “Caucan (Kolonbia) hasi, nasa komunitatearekin, eta ondorengo Yucatango (Mexiko) maia komunitatea eta Ekuadorreko kitxua etorri ziren”.

Kitxuaren egoera Ekuadorren

Kitxuaren hiztun kopurua 8 eta 10 milioi artean dago, Peru, Bolivia, Ekuador, Kolonbia, Txile eta Argentinakoak batuta; horietarik, 500.000 inguru bizi dira Ekuadorren. Bertako Konstituzioak dio hizkuntza ofiziala gaztelania dela, eta kitxua eta shuar hizkuntza ofizialak direla, baina kultura arteko harremanetarako. Gainerako jatorrizko hizkuntzak, beste hamabi, ofizialak dira, baina herri indigenak bizi diren eskualdeetan soilik. Horrez gain, Konstituzioaren beste atal baten

arabera, eskola curriculumetan jatorrizko hizkuntza baten irakaspena txertatu behar da pixkanaka, baina horrek, Sobrinoren arabera, “eskubide deklaraziotik gehiago du hizkuntza sustatzeko politika publikotik baino”, erakundeek ez baitute baliabiderik bideratzen. Hori dela eta, “funtsezkoa” da kitxuaren aldeko hizkuntza politika. Hala, Ekuadorreko iparraldeko hiru hiritan (Otavalo, Cotacachi eta Cayambe), hitzarmenak sinatu dira udalekin hizkuntza plangintza programak martxan jartzeko.

Kitxuena herri antolatua da, badira gizarte zibiletik sortutako egiturak, baina hizkuntzak ez du zentralitate, hizkuntza estandarra gizarteratzeko prozesuan egon arren, “gurean hain ezagunak ditugun erresistentziak gainditzen ari dira”. Familia transmisioa % 30ekoa da gaur egun, beraz, etxeko transmisioa **etete**³ zorian dago. Hezkuntza arloan, berriz, Kultura Arteko Hezkuntza Elebiduna da kitxuarekin nolabaiteko lotura izateko aukera bakarra, baina hamarkadetako ibilbidean ez du elebidun osorik sortu. In-



Gartzen GARAIO



Mertxe Mugika taldekideen artean.

Nolakoa izan da esperientzia, oro har?

Oso aberasgarria. Niretzat oparia izan da esperientzia horretan parte hartzeko aukera edukitzea. Asko ikasi dut, ez bakarrik hizkuntzaren gainean. Beste arlo batzuk ezagutzeko parada ere izan dut: indigenen mugimenduaren nondik nora-

koak, elikadura eta burujabetza aurrera eramateko proiektu kooperatiboak eta, horien barruan, emakumeen ahalduntzea... Horrez gain, helduak alfabetatzeko eta ez dakitenek kitxua ikasteko proiektua bideratuta uztea oso pozgarria izan da.

digenei baino ez zaie bideratzen, astean 3-4 orduz dituzte kitxua eskolak, ez dago ez materialik ez irakasleentzako prestakuntzarik, eta, askotan, irakasleak berak ere ez daki kitxuaz. Egoera horretan, kitxuaren aldeko aktibistek bi lerro lehenesten dituzte hezkuntzan: kitxuazko murgiltze eredu sortzea eta Kultura Arteko Hezkuntza Elebiduna sendotzeko irakasleak prestatu eta materialak ekoiztea.

Hizkuntza biziberritzeko ekimenak abian dituzte hainbat arlotan (hedabideak, helduen alfabetatzea, aktibismo digitala...), baina dispersioa handia da, eta egi-

tasmoak ez daude egituratuta. Horregatik, Garabideren prestakuntzetan parte hartutako ekintzaile kitxuek Sisariy elkarte sortu zuten, 2017an. Sisariy hizkuntza identitatearen bihotza dela aldarrikatzen du, eta berak koordinatzen ditu, Ekuadorreko Imbabura probintzian, kitxuaren aldeko ekintzak eta bestelako erakundeetan hizkuntzaren alde diharduten norbanakoak. Adibidez, Tinkunakuy helduen alfabetatzeko erakundea, Kichwashun aktibismo digitalerako taldea, Imbaburako Kitxua Gazteen Elkarte, Iluman irratia eta *Wiñay Kawsay* aldizkaria.

Ikastaroan parte hartzeaz gain, zer gehiago egin zenuen?

Denetik. Hainbat mahai-ingurutan parte hartu genuen, eta elkarriketak izan genituen hango irratietan nahiz telebistan. Turismo apur bat ere egin genuen inguruak ezagutzeko: Peguche ur jauzia, galdara bolkaniko baten barruan dagoen Cuicocha laku zoragarria... Deforestazioari aurre egiteko programa bat ere ezagutu genuen, paraje zoragarri batean ibilaldia eginez.

1. Hauspotu: *bultzatu, sustatu.*

2. Biderkatzaile: *multiplicador (es), multiplicateur (fr).*

3. Eten: *moztu.*



Euskararen berreskurapenerako egin den lana sintetizatu eta sistematizatzeko, Euskararen berreskuratzea bilduma osatu eta zintzilikatu du Garabidek www.garabide.eus gunean, doan eskuragarri.

Gartzen GARAIO



Zer egin N-121-A errepideko istripuak gutxitzeko?

Azken hamar urteotan, 33 pertsona hil dira N-121-A errepidean, istripuetan; horietatik lau, azken bi hilabeteetan. Ezbehar ugari izaten dira Iruñea eta Behobia lotzen dituen errepidean, eta hark zeharkatzen dituen eskualdeetako herritarrek kexu eta haserre dira aspalditik, egoera hobetzeko neurri eske. Azkenaldian protestak eta mobilizazioak egiten ari dira herritarrek. Besteak beste, N-121-Atik igarotzen den kamioi trafikoa murrizteko eskatzen dute. Nafarroako Gobernuak, hasieran, bestelako neurriak iragarri zituen. Nagusia, 2+1 eredia: norabide batean errei bakarra izatea eta bestean bi, baina txandakatuta. Haatik, udal eta herritarren ustez, neurri horrek ez du ezer konponduko. Hain justu, galdetegi hau egin ostean jakinarazi zuen Nafarroako Gobernuak kamioietarako bidesariak jartzeko asmoa. Zuek zer egingo zenukete N-121-A errepideko segurtasuna hobetzeko? Baztango AEK Suinki euskaltegiko A1/A2 taldea

Duela hamar urte, 3.000 kamioi egunean igarotzen ziren. Orain, 9.000 igarotzen dira. Jorera da kamioi eta auto gehiago ibiltzea, beraz, istripu gehiago izango dira. Konponbidea autobia eraikitzea da.

Octavio

Lehendabizi, jendea kontzientziatu behar dugu errepideko arriskuez. Bigarrenik, kamioiak egun batean bai, eta bertzean ez ibiltzea errepidean. Hirugarrenik, autobia egitea. 30 urte daramagu errepiderako konponbidea eskatzen.

Tasio

Kamioiek bakarrik ez dute errua istripuetan, autoen abiadurak ere eragina du. Nire ustez, hauek dira konponbideak:

- Autobia egitea.
- Bi gehi bi egin.
- Nazioarteko trafikoa debekatu.

Fernando

Ez dut uste arazoa kamioi kopuruan dagoenik. Jendeak ez ditu erresetatzen abiadura eta trafiko seinaleak. Nire ustez, konponbidea autobia egitea da, eta egin bitartean, radar eta kontrol gehiago jartzea. Asfaltoa konpondu eta argi gehiago jarri.

Kontxi

Nik uste dut autobia egitea hoberena dela. Konponbiderik garestiena da, baina epe ertain eta luzera onena da; bestenaz, bi aldiz gastatuko dugu, eta bitartean jendea hiltzen ari da.

Garrantzi gutxiagoko bertze errepide batzuetan gastatu da, zergatik hemen ez? Hau da bigarren irteera garrantzitsua Europako mugarako.

Estela

Nire ustez, 2 neurri hartu behar dira: lehena, epe motzean, Espainiatik ateratzen eta sartzen dena gutxitu; bigarrena, 2 gehi bi edo autobia egin.

Maribel

Kamioi asko dago, eta autoak ere bai. Nire ustez, mugara joaten diren kamioiek autobidea hartu behar dute. Agian, garraio publiko gehiagok lagunduko luke autoak gutxitzen. Bestetik, jendea sentsibilizatu behar da ez ibiltzeko abiadura handian.

Klara

Konponbide hoberena autobia da, baina nik uste dut sobra garestia dela, eta ez dakit beharrezkoa den. Bitartean, uste dut hoberena dela nazioarteko trafiko astuna debekatzea, bidegurutzeak eta mantentze lanak hobetzea. Eta ikusiko dugu bi gehi bat txanda nahikoa den.

Alejo

Ez da hain fazila

Bidali zuen zalantzak, guztiok aberastuko gara eta.

AIZU! • Ez da hain fazila

Iztueta kalea 3, behea. 20001 DONOSTIA

Posta elektronikoa: euskaratu@aek.eus

Ale honetan hainbat kontu argitzen jarraituko dugu.

(*) Asteriskodunak gaizki daude, jakina.

galde d^ebalde?



Kaixo. Uste dut beste hizkuntza batzuetako hitzak letra etzanez idatzi behar ditugula, euskal hiztegieta jasota ez badaude; bestela, letra arruntez, internet bezala. Ez dut argi, baina, nola jokatu behar dugun euskarak jada bere egindako horiekin, adibidez: **internet** ala **Internet**, **internet** ala **interneta**, **internetekin** ala **internetarekin**?

Zure adibide zehatzari helduta, **Internet** da forma egokia (alegia, lehenengo hizkia letra larriz idatzita, eta bukaeran artikulurik (-a) gabe). Izan ere, izen propiozat jo genezake, Facebook, WhatsApp edota Twitter bezalaxe. Hortaz, esaldiaren hasieran egon ez arren, beti idatzi behar dugu Internet, eta honela deklinatu (mugagabea):

- Egun, Internet**ik** gabe ez gara ezer.
- Esan diezadakezu zein den Internet**en** sartzeko pasahitza?
- Informazio guztia Internet**etik** atera dut.

Hitz arruntak direnean, ordea (hots, lexikalizatuak), letra xehez idatzi behar dira, eta artikularekin (mugatuan) deklinatu: **penaltia**, **play-offa**, **pantiak**... (bai, hiru horiek eta antzeko beste asko dakartza Euskaltzaindiaren Hiztegiak).



Zalantza dugu **dena** eta **guztia** guztiz berdinak diren, eta zuzena ote den esatea, adibidez, "**Dena/guztia/osorik eraman du etxera**". Badakigu, **osoa** ez dela zehazki aurreko biak bezalakoa, baina batzuetan (adibidean, esaterako) iruditzen zaigu ondo dagoela besteen ordeiz.

Alde batetik, **dena** eta **guztia** gauza bera dira; hau da, esanahi bera dute. Alabaina, erabilerari dagokionez, badute aldea: **dena** aurretik inolako subjekturik gabe erabili behar da, bera bakarrik: **Denek dakite hori horrela dela** (ikasleek, esaterako), **Denak dira baliozkoak mundu honetan** (ideiak, kasu); **guztia**, aldiz, bakarrik ala lagunduta balia dezakegu, eta bietara dago ongi: **Ikasle guztiek dakite hori horrela dela**; **Idea guztiak dira baliozkoak mundu honetan**; **Guztiok dakigu zertaz ari garen**. Azkenik, izan kontuan **guztiaren** aurrekoa erakuslea izanez gero, berdin deklinatu behar direla biak: **Urte hauetan guztietan, ez dugu elkar ikusi**; **Horretaz guztiaz bihar mintzatuko gara**; etab.




Osoa, baina, beste gauza bat da: zati edo osagairik falta ez zaiona (Euskaltzaindiaren Hiztegiak *dixit*; beste esangura batzuk ere baditu, baina kasu honetan hori dugu interesekoa). Adibidez, **liburu osoa irakur dezakegu**, **hasieratik amaierara**, edo zati bat besterik ez, erdiraino edo; **tarta bat osorik jan dezakegu**, edo puska bakar bat; **mundu osoa ezagut dezakegu**, edo gure herrialdea besterik ez... Hortaz, normalean, **osoa** ezin izaten da **dena** edo **guztia** berben ordeizko izan, ez baita zehazki gauza bera.

Zure galderako adibidean, esate baterako, posible da esatea "**osorik eraman du etxera**", baina argi edukita elementu bat elipsian utzi dugula (tarta, soldata, oho-rea, zintzotasuna...) jada ezaguna delako.



Idatzi hitz bakoitza dagokion tokian.
Gaia: IRINAK ETA PASTAK.



3 HIZKI

FIN
OGI
ORE

4 HIZKI

ARTO
BETE
ESNE
GARI
IRIN
JUKA
LODI
LUMA
LUZE
ZOPA

5 HIZKI

ARROZ
FIDEO
OLATA
PASTA
ZAPAL
ZINTA

6 HIZKI

BEREZI
FRESCO
GLUTEN
HELIZE
LEKALE
SEMOLA
SIMPLE
TOMATE
ZATITU
ZEREAL

7 HIZKI

ALMIDOI
ESNEDUN
KIRIBIL
MALTATU
RAVIOLI
TAPIOKA

8 HIZKI

ARRAUTZA
DERIBATU
DESTRINA
ESPAGETI
INTEGRAL
MAKARROI
SEMOLINA

9 HIZKI

GLUTENDUN
KIRIBILDU
KONPOSATU
TOMATEDUN


11 HIZKI

TAGLIATELLE



Hiztegia erotu egin zaigu, lagunduko al diguzu hitzak dagozkien definizioekin lotzen?


BIDE	1. Burusoilak ez direnek buruan duten harizpietako bakoitza.
SOKA	2. Herri kirol batean baliatzen den hari multzo bihurritu.
ILE	3. Animalia batzuek ipurdi aldean daukaten gorputz adar.
KOTXE	4. Garraioak geratzen diren leku, jendea jaisteko eta igotzeko.
BELAR	5. Burua estaltzen digun tapaki, hotzetik edo euritik babesteko.
TXANO	6. Hamabi kilo eta erdi pisatzen duen pisu neurri zahar.
ARROA	7. Haurrak garraiatzeko erabiltzen dugun orga.
MIN	8. Leku batetik bestera garamatzen espazio zati.
GELTOKI	9. Analgesikoak hartzera bultzatzen gaituen ondoez mota.
BUZTAN	10. Behie, ardiei... gehien gustatzen zaien jaki.



letra Z opa



Irudi bakoitzaren izena dagokion lekuan jarrita, atsotitz bat irakurriko duzu.



hitz katea

Lerro batetik bestera hizki bakar bat aldatuta, lehen hitzetik seigarrenera helduko zara. Errazago iristeko, hirugarren lerroko hitzaren sinonimoa duzu.

3. Errota

1	B	E	L	E
2				
3				
4				
5				
6	D	A	M	U

Sinonimoak ezkondu

Sinonimoak ezkondu, ea asmatzen duzun nor den alargun bakarra.

MUKURU

GABE

MAKUR

ERRUKI

PATXADATSU

EDOZER

ALTZO

OKER

BARIK

HARRERA

GUPIDA

LASAI


KALAKARI

BERRITSU

ABEGI

GAINEZKA

ZERNAHI




egia ala gezurra

Aldizkariko elkarrizketa nagusia eta erreportajeak irakurri ondoren, esaguzu honako esaldiak egia ala gezurra diren.

1. Kitxua hizkuntza Kolonbian, Mexikon eta Ekuadorren bakarrik mintzatzen da. e g
2. Garabidek esperientziak partekatzen dihardu, munduko hizkuntza gutxituekin. e g
3. Urrutiaren eta Agosen ahuntzek eztulka igarotzen dute gaua. e g
4. Urrutiaren eta Agosen ardiek jaten dutenak zapore berezia ematen dio gaztari. e g
5. Iruña-Veleian, grafitoen auzibideak erabat baldintzatu ditu indusketa lanak. e g
6. Erromatarrek, Iruña-Veleian, bizirik saltzen zituzten itsasotik ekarritako arrainak. e g
7. AZIA elkarte Zuberoako gazteen ekimenez sortutako proiektua da. e g
8. Lapurdiko *Lanbideen Gidaliburua* ekimena bideratu du AZIAk. e g
9. Felix Zubia bertso txapelketetan parte hartu nahi zuelako joan zen bertso eskolara. e g
10. Felix Zubiak uste du gaixoaren hizkuntza jakitea oso garrantzitsua dela. e g

horoskopoa



♈ ARIES martxoak 21-apirilak 20

Itxialdiak badu alde onik ere: apur batean, ez duzu igogailua hartu beharko besazpietan demaseko usaina duen bizilagunarekin.

♉ TAURUS apirilak 21-maiatzak 20

Internet ezinbesteko lagun bilakatu zaizu egunotan, baina ez ahaztu pantailetatik kanpo ere milaka mundu dituzula zain: ireki liburuak!

♊ GEMINI maiatzak 21-ekainak 20

Izarrek diotenez, zorionekoa izango zara aurki: etxeko armairu batean, hamar dozena komuneko paper biribilki topatuko dituzu!

♋ CANCER ekainak 21-uztailak 20

Auzokoak animatzeko balkoian musika jartzea estimagarria izan daiteke... edo gogaikarria. Erreparatu bizilagunen aurpegiei.

♌ LEO uztailak 21-abuztuak 20

Arroz kilo mordoa erosi zenuenez, zertarako eskuratu hainbeste komuneko paper? Idorreriak joko zaitu eta!

♍ VIRGO abuztuak 21-irailak 20

Egoera zail honetan, umoreari eustea garrantzizkoa da. Segi bideo dibertigarriak egiten eta ingurukoak gozarazten; asko eskertzen dute.

♎ LIBRA irailak 20-urriak 21

Konfinamendua hasi zenetik, etxe inguruan bizi diren txorien kantuak entzuten hasi zara berriz. Gozatu jada ahaztua zenuenaz.

♏ SCORPIUS urriak 20-azaroak 21

Erne: "ari diot" esaten duzun bakoitzean, komuneko paper biribilki bat desagertzen da Euskaltzaindiaren egoitzan.

♐ SAGITTARIUS azaroak 20-abenduak 21

Etxeko arropa aldatu egin behar da tarteka: jantzita duzun txandala konfinamenduaren hasieran zegoen modan, baina orain ez.

♑ CAPRICORNUS abenduak 20-urtarrilak 21

Egunero topatzen dugu gauza berriren bat, baita etxean ere: nork esango zuen esekitokitza zenuen hori bizikleta estatikoa dela!

♒ AQUARIUS urtarrilak 20-otsailak 21

Etxean geratu zarenetik, zaletasun berria duzu: errezeta liburua osatzeko moduan zara honezkero! Dena dela, brokolia txokolatearekin nahastea...

♓ PISCES otsailak 20-martxoak 21

Online bidezko kultur emanaldiak ikustea ongi dago, baina hau amaitutakoan kultur emanaldietara joaten jarraitzea askoz hobeto.

logika jokoa $1+1=2$

Bost laguneko ume taldeak litxarreriak erosi ditu parkean guztiak partekatzeko. Osatu koadroa, bakoitzak zer eta zenbat erosi duen jakiteko.

IZENA	ABIZENA	LITXARRERIA	ZENBAT

1. Txikleak eta txupatxusak erosi dituztenak neskak dira, baina Mirenek ez ditu bost gauza erosi, lau baizik.
2. Aitorrek sei litxarrerria erosi ditu.
3. Eizagirrek krispeta poltsak erosi ditu, eta Arratibelek bi poltsa pipita.

4. Bilbaok Koldo Antiak baino litxarrerria gehiago erosi ditu, baina Mitxelenak baino gutxiago.
5. Txikleak erosi dituenak Imanolek baino bi litxarrerria gehiago erosi ditu.
6. Anek txupatxusak erosi ditu.
7. Haur batek hiru gominola erosi ditu.

Ez da hain fazila

7

hamazazpi baietz!

1. Nor da ETBko *Gure Kasa* saioaren aurkezlea?

- a) Ilaski Serrano
- b) Anne Igartiburu
- c) Telleria anaiak

2. Zenbat hortz ditu krokodilo batek?

- a) 60-70 artean
- b) 70-80 artean
- c) 80-90 artean

3. Zein filosofok esan zuen "*Hil da jainkoa*"?

- a) Sartrek
- b) Nietzschek
- c) Marxek

4. Zein da dendrokronologia-ren aztergaia?

- a) Izarrak
- b) Zuhaitzak
- c) Intsektuak

5. Nork egiten du irrintzi?

- a) Ardiak
- b) Txakurrak
- c) Zaldiak

6. Udalerri hauen artean, zein ez da euskararen arnagune?

- a) Ondarroa
- b) Leitza
- c) Azkoitia

7. Zein museotan dago Rubensek margotutako *Hiru Graziak* koadroa?

- a) Parisko Louvre museoan
- b) Vatikanoko museoan
- c) Madrilgo Prado museoan

8. Zer ulertu behar duzu norbaiti "*adar bat falta zaiola*" esaten badizute?

- a) Musika tresna galdu duela
- b) Inork ez diola adarrik jarri
- c) Ez dela pertsona bete-betea

9. Zenbat urte bete ditu aurten Google Maps zerbitzuak?

- a) Hamabost
- b) Hamahiru
- c) Hamar

10. Nongoa da Likud izeneko alderdi politikoa?

- a) Israelgoa
- b) Palestinakoa
- c) Irangoa

11. Zein da Europako aintzirarik handiena?

- a) Onega
- b) Ladoga
- c) Peipus

12. Zein animalia ageri da Arabako armarrarian?

- a) Arranoa
- b) Lehoia
- c) Otsoa

13. Nola bukatzen da atsotitza? *Ardoa barrura, ...*

- a) haizea burura
- b) sekretua kanpora
- c) beroa bihotzera

14. Zein da Aloña mendilerroko gailurrik altuena?

- a) Kurtzezar
- b) Gorgomendi
- c) Botreaitz

15. Zein itsasotan dago Mitilniko kaia?

- a) Egeon
- b) Tirrenon
- c) Adriatikoan

16. Zer dira Makemake eta Haumea?

- a) Eguzki sistemako planeta nanoak
- b) Japoniako marrazki bizidun batzuk
- c) Japoniako mitologiako iratxoak

17. Zenbat orduren aldea dago Euskal Herria eta Kaledonia Berriaren artean?

- a) 10
- b) 12
- c) 14



	Idolozealeak		10. hilabetea	Hankak
	Edatekoa		*	Jupiterren satelitea
	Nafarroako ibaia			
	Erabat bustita			
KJPARGETER - Freepik				Gramo
				Janari ongailua
Zu zeu, esaterako	*		Buruhauste	
Galiziako hiria	Arabako udalerria			
			Bokalik gabeko ataria	Kasik
			Txistu, listu	Bokal mehea
*				
Ezeztatuak				
				Fosforoa
				*
				Fruituen likido urtsu
Garai, aldi			Potasioa	Marokoko hiria
Eraso			Katalanez, deus	Bokala
				Lege
				Ugaztun mota
Txartel				Uranioa
Gabezia				Hizki grekoa
			Saria eman	Kontso-nantea
			Euskal sindikatua	Jatorri atzizkia
Bokala		50	Molusku mota	
Kopia		Bokalik gabeko edena	Errep., fruitu tropikala	Kanpo, landa
				Oinarrizko edaria
				Kontso-nantea
*				Kontso-nantea

* Zuhaitzak berezkoak dituenak

lauki lerroa



Definizioak bete ondoren, idatzi hizki bakoitza dagokion laukitxoan, eta Albert Einstein zientzialariaren aipu bat irakurriko duzu.

1	2	3	4	5	6	7	8		
9			10	11	12	13	14	15	
16				18	19	20	21	22	
		23	24	25	26	27	28	29	
30		31	32	33	34	35	36	37	
38			39	40					

1. Ondradua denaren nolakotasun.

30 20 28 32 11 37 29 12 33 14 8

2. Zerbaiten falta.

36 9 18 7 16 5 19

3. Zerbaiti kolorea eman.

6 40 25 23 22 15 34

4. Argia igarotzen eta atzean dagoena garbi ikusten uzten duena.

13 38 26 4 10 21

5. Irauten du.

39 31 2 35 3

6. Kasik.

1 24

7. Lehen bokala bi aldiz.

27 17

toki ezezaguna



Ba al dakizu zein den
ezkerraldeko irudian
azaltzen den lekua?
Hala bada, bidal ezazu
zure erantzuna
apirilaren 15a baino
lehen irudia@aek.eus
helbidera eta, asmatuz
gero, sari baten
zozketan parte
hartuko duzu!
Animo,
oso erraza da eta!

pertsonaia ezkutua



- Hernanin jaio zen, 1949an.
- Euskal alpinismoaren izen nabarmenenetakoa da, nahiz eta gutxitan agertu ohi den jendaurrean.
- Mendi gidari aritzen da, eta hiru zortzimilako igo ditu.
- Everesten gailurra zapaldu zuen lehen euskalduna izan zen, 1980ko maiatzaren 14an.

Dagoeneko, badakizu zein den, ezta? Bada, bidali zure erantzuna apirilaren 15a baino lehen irudia@aek.eus helbidera eta sari baten zozketan parte hartuko duzu!

Saridunak!




toki ezezaguna: ERRIBERRI.

Sariduna: ALBERTO DIEZ.

pertsonaia ezkutua: EGUNEAN BEHIN.

Sariduna: KORO RODRIGUEZ.


hitz gurutzatuak



hiztegi e roa

1. ILE. 2. SOKA. 3. BUZTAN.
4. GELTOKI. 5. TXANO. 6. ARROA.
7. KOTXE. 8. BIDE. 9. MIN.
10. BELAR.

letra Z opa



atsotitza O satu

BELDURRA, LAGUN MAKURRA.
Jertse, diru, ardi, ate, mahats,
aulki, marrubi, arkatx, irrati,
euritako.

hitz katea

1. BELE. 2. BELU. 3. BOLU.
4. DOLU. 5. DOMU. 6. DAMU.

Sinonimoak ezkundu

MUKURU-GAINEZKA. MAKUR-
OKER. PATXADATSU-LASAI.
BARIK-GABE. GUPIDA-ERRUKI.
KALAKARI-BERRITSU. ABEGI-
HARRERA. ZERNAHI-EDOZER.
ALTZO.

egia ala gezurra

1. g; 2. e; 3. g; 4. e; 5. g; 6. e;
7. e; 8. g; 9. g; 10. e.

logika jokia

Miren Bilbao, 4 txikle.
Aitor Eizagirre, 6 poltsa krispeta.
Koldo Antia, 3 gominola.
Ane Mitxelena, 5 txupatxus.
Imanol Arratibel, 2 poltsa pipita.

hamazazpi baitz!

- 1c. 2b. 3b. 4b. 5c. 6c. 7c. 8c. 9a. 10a.
- 11b. 12b. 13b. 14c. 15a. 16a. 17c.

hitz gezidunak



lauki lerroa

IRUDIMENA EZAGUTZA BAINO
GARRANTZITSUAGOA DA.

1. ZINTZOTASUN; 2. GABEZIA;
3. MARGOTU; 4. GARDEN;
5. DIRAU; 6. IA; 7. AA.

Izenen jatorrian sakontzen jarraituko dugu *Izenen izana* atalean. Oraingoan, Imanol izenari egin diogu leku. Nolanahi ere, ateak parez pare zabalik ditugu zuen proposamenak jasotzeko. Horrenbestez, zuen izenaren jatorria edota esanahia jakin nahi badituzue, eskatzea libre! Posta elektronikoko honetara

idatzi besterik ez duzue: *aizu@aei.eus*. Bilatzen eta zuen eskura jartzen saiatuko gara, ezer agintzen ez badugu ere... **AITOR FDEZ. DE MARTIKORENA**



ImANoL

Gaurko izena 1910ean jaio zen, S. Aranaren eta K. Eleizalderen eskutik, "Manuel" ordezkatzeko. Hala ere, historia sakona du, baduenez! Ezagutu nahi?

Manuel hebreerazko "Immanu'el" etik dator, eta K.a. VIII. mendeko Isaias profeta israeldarrak erabili zuen lehen aldiz. Hala, Bibliako *Isaiasen* *profeziaren* 7.14. atalak hauxe dakar: "*Jaunak berak emango dizue, bada, ezaugarria: hona, andre gaztea haurdun dago eta semea izango du, eta Immanuel, hau da, «Jainkoa gurekin», jarriko dio izen»*"; kristauen ustez, Jesus izan zen ume hura. Geroago, Emmanuel grekoz eta latinez idatzi zen; horrela sortu ziren erdarazko Manuel (gazt.) eta Emmanuel (fr.).

Izena kristautasunarekin batera **hedatu**¹ zen. Historian, erraz topa daitezke santu, beato eta erregeak: Malagako apezpiku martiria († 619) edo Bizantzioko Emanuel I.a Komneno (1143-1180), esaterako. San Manuel urtarilaren 1ean ospatzen da.

Edonola ere, Erdi Aroan ez zuen hedadura handirik izan gure artean; hori bai, Debako agiri batean (1483), bi adibide ditugu: Manuel de Elorriaga eta Johangose (Juan Jose) Manuel.

XIX. mendea amaitzean, S. Aranek santutegiko izenak oro itzultzeari ekin zion, eta horiek euskaratzeko, haren hitzetan "*euren jaiotzan*" hartu zituen. Hortaz, jatorrizko "Immanuel" hartu, "ue" dip-

tongoa "o" bihurtu, eta horrelaxe sortu zuen Imanol.

1936ra arte, nolabaiteko arrakasta izan zuen. Hala, Aranek berak gutun bat bidali zion Xemeingo Imanol Endaiari 1902ko uztailan, kartzelatik. Gerra Zibilaren ostean, aldiz, euskal izenak debekatu egin ziren, **hala** erregistroan **nola**² kalean. Egoera ulertzeko, ikusi zer idatzi zien alkateei Gipuzkoako gobernadore zibilak (gaztelaniaz, noski): "...*jakin dut izen euskerikoak jartzeko edo erabiltzeko ohitura gaiztoa berriro ageri dela probintzia honetan (...) erregutzen dizuet adi egoteko, horrelakorik gerta ez dadin; salatu autoritateari horrela jokatzeko dutenak...*".

Halaber, *Diario Vascon* (1937-VII-29) hauxe agertu zen: "*Min ematen du entzuteak mutiko bati "Imanol!" edo "Joseba!" esaten diotela; berak ez du errua amak harrikatzeko³ badu separatista batzuek asmatu izenaz (...) emakumeak kontura daitezela gauza eta izen batzuk betiko amaitu direla. Ez dute nahiko bizirik irautea?*" Alta, faxistek ez zuten asmatu: 1986-96 artean, kasu, Imanol izan zen 20. mutil izenik erabiliena Hego Euskal Herrian. Egun, ia 7.000 dira; batez beste, 30 bat urte dute.

1. Hedatu: zabaldu.

2. Hala... nola...: bai... bai...

3. Harrikatu: zigortu.



hiriaren bihotzean

Landa eremua Iruñaren bihotzeraino eraman du Roberto Urrutia Atienzak. Hiriko azken artzainaren semeak aitaren ogibidea berreskuratu eta *gasnategia* zabaldu du Txantrean, jaiotzen ikusi zuen auzoan. Astiro-astiro, aurrera doa haurtzaroko ametsaren atzetik, landa eremuaren eta kalearen arteko harremana indartzeko xedez. **ARKAITZ ALMORTZA.**

Garai batean elkarrekin bizi ziren hirien eta herrien arteko harremana gogor kolpatu du globalizazioaren zurrunbiloak, eta, gaur egun, kalea eta landa eremua elkarri bizkarrak emanda bizi direla esan daiteke, azkenearen kalterako. Horregatik, Roberto Urrutia iruindarraren apustuak harridura eragiten dio pertsona askori, ohikotzat jo beharrean. “Jende askok pentsatuko du erotu egin naizela; benetan maite dudana egiten ari naiz, ordea, nire ametsa bizitzen” dio irribarretsua.

Haurtzaroko ametsa betetzearren murgildu zen Urrutia artzaintzaren munduan, duela bost urte, anaia Xabi eta neska lagun Mari Agosekin batera. Erronka ez da **ahuntzaren gauerdiko eztula**¹ izaten ari. “Hasierako urteak oso gogorak izan ziren; sarritan galdetu izan diot neure buruari: Non sartu zara, baina? Halere, ezina ekinez eginez noa aurrera” dio pozik, arkumeei esnea ematen dien bitartean. “Batzuetan, kostatu egiten zaie titia hartzea, beraz, biberioia eman behar zaie.”

“Logikak bultzatu gintuen hirira: Ezkabako azken artzainak ginen, beraz, polita iruditu zitzaigun gasnategia gure auzoan bertan zabaltzea; eta aukera ederra, halaber, landa eremua hirira gerturatzeko”

Ogibidea **zainetan**² darama. Roberto Urrutiaren aita Iruñeko Ezkaba mendiko azken artzaina izan zen, eta haren omenez jarri diote Ezkabako artzaia izena beren gasnari: “Mendiaren hego-magalean zituen ardiak; udan, berriz, Madalena auzoraino jaisten zituen, eta ni aitarekin batera eramaten ninduten, aulkixoan; ibiltzen ardien artean ikasi nuen.” Hunkitu egiten da garai haiek

gogora ekartzen dituenengan. “Aitak erretiroa hartu zuenean, 17 urte nituen; gerora, faltan sumatzen nituen bizipen horiek. Horregatik, argi nuen lehenago edo geroago neure artaldeak izango nuela. Hala, 2013an, hezitzaile lana utzi, eta artzain hasi nintzen.” Ardi latxa aukeratu zuen abentura honetan murgiltzeko: “Euskal Herriko arraza da, geurea. Alabaina, egia erran, beldurra izan nuen, eremu hau ez delako ardi latxarena. Dena den, oso ongi egokitu dira.” Neguan, Artaitzen egoten dira; udan, oster, Zaldaizko **jaurerrian**³.

Landa eremuan ekoizten dute esnea, eta gasna Iruñean egiten dute. “Logikak bultzatu gintuen hirira: Ezkabako azken artzainak ginen, beraz, polita iruditu zitzaigun gasnategia gure auzoan bertan zabaltzea; eta aukera ederra, halaber, landa eremua hirira gerturatzeko.” Horiek horrela, Urrutiarrek Txantrean zuten lokal bat gasnategi bilakatu zuten. “Gaur egun, oso egoera larrian dago landa eremuaren eta hiriaren arteko harremana. Urte askoan, lehenengo sektoreko lana **gutxietsi**⁴ egin da; inork ez du hemen

lan egin nahi. Jendea bizitza naturaletik des-
konektaturik bizi da, mende luzez gure kultu-
raren parte izan den bizimodutik, gure izaera-
ren bereizgarri izan denetik, gure paisaiak
marraztu dituenetik... pena da" dio, hunkitu-
ta, ardiei jaten eman bitartean.

Auzotarrek "harriduraz" hartzen dute
proiektua, baina ezagutu ahala ekimenare-
kin bat egiten dute. Mari Agos artzainak
azaldu legez, beren produktuak harrera ona
izan du parte hartu duten azokatan: "Gazta
mamitsua da; adituen arabera, Artaitzen
daudenean ardiek jaten dituzten **sastrakek**⁵
eta landare aromatikoek berezi egiten dute",
dio. "Guk, gainera, ez dugu plastikorik erabiltzen
gasna biltzeko, eta horrek ere harrera ona izan
du gure bezeroen artean" dio pozik. Bat-batean,
elkarrizketa eten du. Begirada artaldearen
erdira zuzendu, Urrutiari deitu, eta **aitaren**
batean⁶ desagertu dira animalien artean.
Ardi bati kumea mundura ekartzen lagun-
du diote: "Benetan ederra da une hau; sekula
ez nuen neure burua artzain ikusi, baina ani-
maliekin lan egitea oso polita da" esan du
Agosek, amak kumea mihiarekin nola gar-
bitzen duen ikusten ari garela.

Artzaintzaren geroa

Ilusio betez ari da Urrutia bere ametsa erai-
kitzen. Atzoko izerdia izan zena gaurko
ogia izaten ari da. Nolanahi ere, kezkati
agertzen da artzaintzaren geroari dago-
kionez. "Galtzeko **zorian**⁷ dago ogibidea. Ba-
tetik, animaliekin lan egiten dugunok krimi-
nalizatu egiten gaituen diskurtsoa,
esplotatzailatzat jotzen gaituena, gero eta in-
dartsuago dago, inondik inora horrela izan ez
arren; nik maite ditut animaliak, horregatik
hasi nintzen artzain. Bestetik, azkenaldian bi-
zitza basatia berreskuratzeko politikak
abeltzainekin hitz egin gabe abiatu dira.
Frantziak hartza sartu du Pirinioetan, eta
hainbat buruhauste sortu ditu. Eraso baten
ostean Gobernuak agindutako konpentsazio
ekonomikoak jasotzeko, benetan frogatu be-
har duzu hartzak hil duela zure aberea, eta
burokrazia oso **katramilatsua**⁸ da" azaldu
du kezkaturik. "Jendearen ogibideaz hitz egi-
ten ari gara!" nabarmendu du. Ildo beretik,
zera erantsi du: "Bizitza basatia berreskuratzeko
aren aldeko hautua egingo bada, behetik
gora egin beharko litzateke, gure iritzia kon-



tuan hartuta, animalia basatiak berriro nola
sartu ongi aztertzeko".

Artzaintzaren etorkizuna ilun samarra
ikusten badu ere, ez du itxaropena galdu
nahi, eta tinko borrokatzen jarraitzen du ogi-
bidearen alde: "Artzaintza herri indigenekin
lotutako bizimodua da, Europako azken indi-
genak izanen gara" dio harro. Iaz Madrilen an-
tolaturiko Coop25 gailurraren harira antolatu
ziren jarduera alternatiboetan, artzaintzaren
aldeko aldarrikapena lau haizetara zabaldu
zuen: "Abeltzaintza estentsiboa guztiz iraun-
korra dela aldarrikatu genuen han bildu ginen
artzainok, ingurumenarekin bat egiten duela,
eta elikadura burujabetzaren bidean aurrera
egiten duela".

Urrutiak eta Agosek amaitu dute gaurko
jarduna. Artaldeari jaten eman ostean, eta

guztia txukun utzi ondoren, argiak itzaltzen
dituzte, pixkanaka-pixkanaka, **ukuiluko**⁹
erreginek merezi duten atsedena har deza-
ten. "Lana, batzuetan, gogorra izaten da, bai-
na animaliek ematen dizuten maitasuna ne-
kez topatuko duzu beste leku batean" dio
bikoteak. Gogotsu ari dira beren ametsa bi-
zitzen.

1. Ahuntzaren gauerdiko eztula: txikieria.

2. Zain: vena (es), veine (fr).

3. Jaurerri: señorío (es), seigneurie (fr).

4. Gutxietsi: mespretxatu, erdeinatu, aitortu ez.

5. Sastraka: maleza (es), broussaille (fr).

6. Aitaren batean: oso azkar, ziztu bizian.

7. -t(z)eko zorian: a punto de (es), sur le point de (fr).

8. Katramilatsu: korapilatsu, nahasgarri.

9. Ukuilu: establo (es), écurie (fr).



Iruña-Veleian,

Iurrak hitz egiten jarraitzen du

Aurten amaituko da Iruña-Veleiako **aztarnategiko**¹ Plan Zuzentzailea 2010-2020. Grafitoen inguruko **zalapartaren**² eta auzibidearen itzalpean geratu dira lanak, baina aztarnategiaren **handitasunaren beste erakusle bat utzi dute agerian: merkatua. JON REJADO.**

Iruña-Veleia erromatar garaiko Euskal Herriko aztarnategirik garrantzitsuenak da. Hala izendatu dute adituek, eta, zalapartak zala-parta, hori ez da aldatu. Halaxe berretsi da azken hamarkadan, egindako **indusketa-tan**³ aurkitutako aztarnei esker: *maccelum* edo merkatua *iter XXXIV* galtzadaren arrastoaren ondoan, harresietatik kanpo. Aurkikuntza horiek Iruña-Veleiak izan zuen eta gaur egun duen garrantzia islatzen dute, euskarazko idatzien auzibidearen itzalpean geratu diren arren.

Ikertzaileen arabera, merkatua Kristo ondorengo 100. urtearen bueltakoa da. *"Azokan, bi fase antzeman daitezke: I. mendekoa lehena, eta bigarren mende hasierakoa hurrengoa."* Bibat museoan Javier Fernandez Bordegarai zuzendariak azaldu du merkatuaren egitura beste aztarnategi batzuetan aurkitutakoen berdina dela, ohi baino handiagoa, hori bai: 1.100 metro koadro inguru ditu.

Zein leku induskatu aietik ateratako irudi batzuei esker erabaki zuten; izan ere,



Aurreko milurtekoan egindako indusketa lanen aztarnak.

zerbait egon zitekeela antzeman zuten argazki horietan. Raquel Cebrian aztarnategiko gidariaren esanetan, baliteke merkatua zabalagoa izatea. Induskatutako lekuaren ondoan, **galtzadaren**⁴ beste aldean, beste merkatu bat egon daiteke. Gasteiztik hamar bat kilometrora, indusketetara joaten direnek aurkikuntza berriak ikus ditzakete, baita 50eko hamarkadatik gaurdaino azalera-tutako aztarnak ere. Are gehiago, merkatuan aurkitutako objektuak Bibat museoan ere ikus daitezke.

Arrainak eta kapera

Azokaren eraikina karratua da. Erdian, patio bat zuen, eta haren inguruan, dendak; horietako gehienetan zer saltzen zuten argitu gabe dagoela dio Bibat museoaren zuzendariak. Edonola ere, badituzte hiru eremuren erabileraren aztarnak. Lehena patioaren erdian dago, eta bertan arrainak saltzeko leku bat zegoela ondorioztatu dute. **Urmael**⁵ txiki baten antzeko zerbait aurkitu zuten: putzu bat. Arrainen **ezkatak**⁶ eta hezu-

Induskatutako merkatuaren irudia,
harresietatik kanpo. Jon REJADO



2000ko hamarkadan
induskatutako etxebizitzaren
aztarnak. Jon REJADO



rrak agertu dira eremuan, baita **maskor**⁷ batzuk ere. Fernandez Bordegaraik azaldu du haien jatorria ikertzen ari direla: “Kostal-detik urrun zeuden azoketan ere itsasoko arrainak bizirik saltzen omen zituzten, upelen barruan garraiatu ondoren”.

Merkatuaren izkina batean, beste esparru berezi bat aurkitu dute: *sacellum*-a edo **kapera**⁸. Fernandez Bordegarairen arabera, “oso arrunta” zen hor erritualak egitea. Brontzezko xafla bat aurkitu dute gela horretan. Raquel Cebrian gidariak aztarna horren argazkiak daramatza aldean, bisitariak ikus dezaten. “Ikertzaileen arabera, bertan agertzen direnak Merkurio eta Marte dira, merkataritzaren eta gerraren jainkoak, hurrenez hurren”.

Azkenik, galtzadatik gertuen dagoen gela, hiruki formakoa, merkatuko langileen sarrera zela ondorioztatu dute ikertzaileek. “Hortxe egiaztatzen zuten salgaien pisua ondo zegoela, neurketak legezkoak zirela, alegia, iruzurrik ez zegoela. Gela honetan, neurketak egiaztatzeko osagai horietako batzuk agertu dira” diosku Fernandez Bordegaraik.

Merkatua eta galtzada hertsiki lotuta daudela azaldu du Raquel Cebrianek. “Merkatua galtzadara egokitu zuten; horrenbeste jende pasatzen zen bertatik, ezen hiria izugarri handitu zen”. Une batean, 126 hektarea ere hartu zituen, eta *oppidum*-ak, eremu harresituak, hamar hektarea inguru ditu. Fernandez Bordegaraik gaineratu du *iter XXXIV* galtzadak Astorga (Gaztela eta Leon, Espainia) eta Bordele (Frantzia) lotzen zituela, eta

Indusketetara joaten
direnek aurkikuntza
berriak ikus ditzakete,
baita 50eko
hamarkadatik gaurdaino
azaleratutako aztarnak
ere

Iter XXXIV galtzadak
Astorga eta Bordele
lotzen zituen, eta
autobide moduko bat
zen erromatarren
garaian

“autobide moduko bat” zela erromatarren garaian.

**Etorkizuneko lanak,
zehazteke**

Azken hamar urteotako indusketek bi baldintzatzaile izan dituzte. Batetik, grafitoen auzibideak kokapena baldintzatu zuen, hein batean. Fernandez Bordegaraik azaldu du aurretik ere harresietatik kanpo induskatu nahi zutela: Iruña-Veleia “*oppidum*-a baino gehiago” zela erakutsi nahi zuten. Hala ere, aitortu du epaitegieta egoerak eragin “*apur bat*” izan zuela kokapen berrian aritzeko erabakia hartzerakoan.

2010ean hasitako lanak baldintzatu zi-

tuen bigarren gauza krisialdi ekonomikoa izan zen. Plan Zuzentzailea krisiaren hastapenetan egin zuten, eta asmoak “oso handiak” ziren, Bibat museoaren zuzendariaren hitzetan. Hori dela eta, **testuinguru**⁹ berrira egokitu behar izan zuten. Urtero, 160.000 euro inguruko aurrekontua izan du, eta, une zehatzetan, Eusko Jaurlaritzak 100.000 euro eman zituen, harresian lanak egiteko. “Plana garatzeko muga nagusia ez zen izan auzibidea, egoera ekonomikoa baizik” dio Fernandez Bordegaraik.

Aurten, ez bide dute lan gehiagorik hasiko, eta urte hauetan egindako indusketek azken ukituak emango dizkiete: egonkortu, bisita gidatu eta azpiegitura findu, aurreko urteetako lanak mantendu... Dena den, joan den hamarraldiko Plan Zuzendaria amaituta, etorkizunari begiratzen hasteko unea heltzear da. “Hurrengo planarekin hasten direnean, ikusiko dugu non lan egin: *oppidum* barrura itzuli, kanpoan jarraitu...” Hartzen duten erabakia hartzen dutela, Fernandez Bordegaraik eskatu du aurrekontua gaur egun Foru Aldundiak ematen duena baino handiagoa izan dadin.

1. Aztarnategi: *yacimiento* (es), *lieu de vestiges* (fr).

2. Zalaparta: *ika-mika, polemica*.

3. Indusketa: *excavación* (es), *excavation* (fr).

4. Galtzada: *calzada* (es), *chaussée* (fr).

5. Urmael: *estanque* (es), *étang* (fr).

6. Ezkata: *escama* (es), *écaille* (fr).

7. Maskor: *concha* (es), *coquille* (fr).

8. Kapera: *capilla* (es), *chapelle* (fr).

9. Testuinguru: *egoera*.

Zuberoako gazteriarri esker,

AZIAtik bizia!

Gauza jakina da Zuberoa dela, bai lurralde hedaduraz (765 km²) bai eta herritar kopuruz ere (14.000 biztanle, gutxi gorabehera), Euskal Herriko lurralde edo probintzia historiko txikiena; halaber, ezagutua da kultur berezitasun eta aberastasunez. Gutxiagok dakite, ordea, Ipar Euskal Herri barnealdeko industriagune bakarra dela, eta gazteriarren alorrean talde guztiz kementsu batek diharduela su eta ke lurraldearen ekonomia eta gizarte bizitasuna akuilatzen¹, alor horietan (h)azia² landatuz eta uzta ederrak bilduz.

ALLANDE SOKARROS.

AZIA elkarte 1998. urtean eratu zen, gairai haietan gogoeta batek agerian jarri baitzuen "Zuberoan, gazteentzat bereziki, ezer gutxi egiten zela". Sentipen hori osoki egia ez bazen ere, gazte **anitzek**³ egoera halaxe **hautematen**⁴ zuten. Horretarako zuten gazte talde baten eratzeko erabakia hartu, Zuberoan gazte gisa bazutela zer egin gogoan harturik, baita euren etorkizuna bertan eraikitze ikuspegitik ere. Zuberoan bizi eta lan egin daiteke leloaren ildotik, AZIA elkarteak helburu nagusitzat hartu zuen zuberotar gazteen lurraldearekiko konpromisoa piztea, bideratzea eta horretarako baliabideak sortzea. Hiru egitasmo orokor hartu zituzten betekizun: lurraldea zehazki eza-gutzea, lurraldeko **jarduleekin**⁵ elkartu eta haien ekintzabideen berri hartzea, eta irekitasuna haztea espiritu eta jokatibidean.

Herritarrak, gazteen sustatzaile

Gazteak zirenez eta Zuberoan gazte gisa bizi- zeko eta lan egiteko asmoa zuten (ikasketetarako lurraldetik kanpo joatera behartuak egon arren), beraiek berentzako lanpostuak sortzeko ildo zuten lehendabizi landu, CLEJ izeneko ekimenaren bidez. CLEJ edo Gazteentzako Tokiko **Aurrezki**⁶ Taldearen egitasmoa hauxe da: herritarrei 180 euroko akzioak har ditzaten proposatzea, Zuberoan euren lanpostua sortzeko asmoa duten gazte batzuei diru multzo bat eskue- tan jartzeko. Diru zama hori, noski, ez da nahikoa proiektuak osoki diruztatze- ko, baina bankuetatik **jesaiteak**⁷ lortzeko errazta- suna ematen du. Herritar akziodunek sos hori **mailegatz**⁸ dute, interesik hartu gabe, eta lanpostu sortzaile gazteek euren jarduera ongi bideratu ostean itzultzen



dute dirua, 3 eta 5 urteren bitarteko epean. CLEJ 1 2000. urtean **plantan ezarri**⁹ zen, eta gaur egun CLEJ 8 bideratuta dago. **Bururai- no**¹⁰ eraman diren orain arteko zazpi CLEJei esker, 197.115 euroko dirutza mobilizatu ahal izan da, eta dirulaguntza horiek 60 egi- tasmo gauzatzen lagundu dute, eta ororen buru 96 lanpostu sorrarazi.

Zifra horiek txikiak direla ematen du, baina Zuberoa mailan asko dira eta gazteen konpromiso eta eskusartze handi baten sei- nale dira, euren arteko zein beste belaunaldien aldetikako elkartasun adierazle nabar- menak direlarik, halaber. CLEJ horiek Zuberoatik eta AZIAren ekimenez hasi bazi-





ren ere, Ipar Euskal Herriko beste eskualde-
etara ere, Baxenabarrera kasu, hedatzen
hasi dira. Horrek berak argi uzten du eki-
men mota hori ereduagarria dela, gizarteko
kohesioaren eta egitasmo kolektibo baten
alderdietatik hasita.

‘Lanbideen Gidaliburua’

Zuberoan bizi eta lan egin daiteke, bai... bai-
na lan arloak zein diren eta non jardun dai-
tekeen agerian jarri eta zehaztu behar dela
gogoan harturik, AZIAk *Lanbideen Gidalibu-
rue* deitutako ekimen potoloa bideratu du
azken urteotan. Potoloa bai, zeren eta pa-

perean zein Interneten argitara eman du-
ten gidaliburu horrek egiten baititu Zube-
roan aurki daitezkeen lan arlo den-denen
aurkezpena eta **zehaztapena**¹¹. Guztira,
zortzi lan alor daude gidaliburuan zehaztu-
ta: artatzea (osasun alorra), asmagintza eta
ikerka (sormena eta ikerketa), eraikuntza
eta herri lanak, lantokiak sortzeak eta **arra-
hartzeak**¹², industria, jendeari laguntzea
(jendearentzako zerbitzuak), **laborantza**¹³,
eta lantegien sustapena. Gidaliburua
osatzean, sekulako lana egin dute AZIA-
ko gazteek ikerketan eta datu bilketan.
Berentzat ez ezik, Zuberoako enpresenda-
ko eta lurraldeko jardule eta arduradunen-

dako ere oso tresna baliagarria da. Era bere-
an, Euskal Herriko beste lurraldeetan ere,
lan txalogarri horrek Zuberoa (ekonomia
eta gizarte arloetan, bereziki) zehazki eza-
gutzeko parada ematen du.

Eztabaida gauldiak Zuberoan zehar

AZIAtik hurbiltzen den edonor berehala
ohartuko da elkarteak gazte anitz biltzen
eta mugiarazten duela... baita ere gazte
hauetan neskak daudela gehiengo zabalean!
Horrek ere zerbait erran nahiko du; hots, nes-
kak (eta ez Zuberoan soilik) oso kementsuak
direla, militantismoa ahulduta agertzen den
gaur egungo denboretan. Dena den, neska
ala mutil, gazte ugari bildu dira AZIAk Zube-
roako hainbat herritako tabernetan antola-
tu dituen eztabaida **gauldietan**¹⁴. Bildu ez
soilik, parte hartu ere hitz egitean, ideiak
azaltzean, egoerak aztertzean...

Eztabaida gauldi horietatik batean, ai-
pagaia zen "Honki jin Xiberoan" (Ongi etorri
Zuberoan), eta bazen horretan zer **gogoe-
tatu**¹⁵, jakinez Zuberoak, lehen eta gaur
egun ere, bizi duen erronka garrantzitsue-
netik bat dela jendetza **apaltzearena**¹⁶.
Egoera kezkarri horrek gogoeta bideak
irekitzen ditu kanpotik etor litezkeen jen-
deei harrera egitearen eta Zuberoako eus-
kal kultur nortasun berezia sendo atxikitze-
aren kontuetan. Erronka zaila izanik,
Zuberoako beste jarduleekin batera, AZIA-
ko gazteek jakinen dute, segur asko, gogoe-
ta alor horretatik uzta baliagarriarik biltzen.



1. **Akuilatu:** *sustatu, bultzatu.*
2. **Hazi:** *semilla (es), semence (fr).*
3. **Anitz:** *asko, ugari.*
4. **Hauteman:** *nabaritu, antzeman.*
5. **Jardule:** *eragile, agente.*
6. **Aurrezki:** *gastatzen ez den diru, gordetzen dena.*
7. **Jesaite:** *préstamo (es), prêt (fr).*
8. **Mailegatu:** *dirua utzi, interesen truke.*
9. **Plantan ezarri:** *abian jarri, abiatu, hasi.*
10. **Bururaino:** *bukaeraraino, amaieraraino.*
11. **Zehaztapen:** *concreción (es), concrétion (fr).*
12. **Arrahartu:** *berriz hartu.*
13. **Laborantza:** *nekazaritza.*
14. **Gauldi:** *gaua den denbora tarte.*
15. **Gogoetatu:** *hausnartu, pentsatu.*
16. **Apaldu:** *biztanleak galdu, demografia eskastu.*

“Medikuon armarik indartsuena hizkuntza da”

COVID-19a. Zer ikasbide atera beharko genuke, ateratzen badugu, afera' honetatik?

Aurrenekoa, gaixotasun infekziosoak hor daudela. Ondoren, gure gizarte antolaketara bera ere, bizimodua, arriskutsua izan daitekeela. Hau da, hainbesteko turismorik ez balitz, hain mundu globalizatua ez balitz, gaixotasunak ere ez lirateke hain erraz zabalduko, beharbada. Gero, osasun publikoa denon ardura dela; osasun arloko langileena ez ezik, pertsona guztion ere: azken finen, nik hartzen ditudan erabakiek beste guztiei eragiten diete. Azkenik, modu osasungarriagoan bizitzen ikasteak badauzkala denontzako babes eragin batzuk.

Osasuna hizpide, dibulgazio lana egiten duzu bai irratian bai hitzaldietan. Zenbateraino da garrantzitsua halako lana, guztioi eragiten digun alor horretan?

Osasun langileon eta, batez ere, medikuon akats handienetako bat izan da geure buruari gehiegi begiratzen diogula, eta ez dugula ulertzen osasuna denon kontua dela. Jende guztiari zenbat eta hezkuntza gehiago eman, zenbat eta osasun kultura zabalagoa izan, denontzat hobe: bai geure burua bai ingurukoak zaintzeko, baita edozein arazo denean neurritz jakatzeko ere. Dibulgazio lana horregatik gustatzen zait. Nire ustez, gizarte informatua ona da alderdi guztietatik, eta profesionalon ardura da hori egitea. Hizkuntza ulergarrian egitea lortzen baldin badugu, hobe; eta, noski, euskaraz egitea lortzen badugu, are hobeto.

Zer-nolako garrantzia du komunikazioak medikuen eguneroko jardunean? Eta ZIUn?

Dudarik gabe, garrantzitsua da. Medikuen armarik indartsuena hizkuntza da, gure sendabide eta gauza guztietarako. Lehenik eta behin, paziente bati elkarriketa egin behar diogu, ahoz. Gaur egun, informazio iturririk handiena pertsona horrek kontatzen diguna da. Gero, azterketa fisikoak eta teknologia guztiak dauzkagu, baina batez ere elkarriketak inporta du. Ondoren, nik pertsona horri komunikazioa itzuli behar diot, esplikatzu zer duen, edo nik zer dakidan, behintzat; azaldu behar diot zein proba egingo dugun eta zein ez, eta zergatik; eta, azkenik, zein tratamendu egingo dugun. Tra-

Felix Zubia

Osasuna, komunikazioa eta dibulgazioa egunerokoak ditu Felix Zubia Olaskoaga (Zarautz, 1974) medikuak. Donostiako Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean egiten du lan, EHUn irakaslea da, eta igandero *Osasun Etxea* irratsaioa egiten du Euskadi Irratian, osasun gaiak jorratzeko eta argitzeko. Hitza eta jakintza, hizkuntza eta ezagutza, lagun eta tresna ditu bertsoan ere jarduten duen medikuak. Elkarriketa martxoaren 11n egin genuen, COVID-19aren krisiaren hastapenean. EÑAUT MITXELENA. Argazkiak: AMAIA ZABALO.

tamendu hori bete dadin lortzeko ahalegina ere egin behar dugu, eta, horretarako, komunikazio ekintza **eraginkorra**² behar dugu. Hori lortu ezean, gaizki gabilta.

Eta zer da komunikazio ona medikuarenean?

Denborarekin ere ikasten da, baina pertsonarekin hizketan ari zarenean, gutxi gorabehera badakizu zer nahi duen eta zer jakin nahi duen. Sendagileok egia esan beharra dugu beti, gezurrik sekula ez, bestela konfiantza galdua daukazu. Horrez gain, pixkanaka esan behar dira gauzak, ahal dela, bederen, informazioa **brast**³ bota gabe. Gero, elkar eza-gutu ahala, pazienteak berak eskatzen dizu informazioa, berak esaten dizu zenbateraino jakin nahi duen. Elkarriketan aurrera zoazen heinean, gehiago galdetzen duen ala ez ikusten duzu. Hortaz, informazioa pixkanaka askatzen duzu, eta, gehiago eskatzen badu, askatzen jarraitzen duzu; ez badu gehiago eskatzen, aldiz, emango diozu gehiago beste egun batean, eta hurrengoan pixka bat gehiago... Era berean, beti da garrantzitsua, errealista izanik eta egia ahoan, informazioa baikorra izatea, ahal bada. Ezin denean ezin da, baina **zirrikituren**⁴ bat baldin badago, utzi irekita. Zeren borrokatzeko gaitasuna ere beharrezkoa baitugu, eta hori ere lortu behar

“Osasun publikoa denon ardura da: osasun arloko langileena ez ezik, pertsona guztiona ere”

“Mediku onak pazientearen hizkuntza menderatu beharra dauka, munduko hizkuntza guztiei dagokienez”

“Heriotza tabu bihurtu dugu, eta hori ez da naturala, ezta egokia ere; bizitzaren zati bat da, eta naturaltasun handiagoz bizi beharko genuke”

1. **Afera:** auzi, arazo.

2. **Eraginkor:** eragina duena.

3. **Brast:** kolpe batean, bat-batean.

4. **Zirrikitu:** *resquicio* (es), *fente* (fr).

5. **Ziurtasun:** segurtasun.

dugu. Guztiz galdua baldin badago, garbi esan behar da, baina aukera dagoen bitartean... eutsi.

Esan duzu hizkuntza dela zuen tresnarik garrantzitsuen. Hortaz, gaixok beren ama hizkuntzan artatzea oso inportantea da.

Bai. Hor, tranpa handia dago: zer nahi duzu, mediku ona ala euskalduna? Hori ezinezkoa da. Gaur egun, euskaldun bat ongi tratatzeko, mediku euskalduna behar da. Baina berdin gertatzen da mundu osoan, ez da euskaldunok bereziak garelako. Inori ez zaio bururatuko bere hizkuntza menderatzen ez duen sendagile batengana joatea, oso ona izan arren. Zergatik? Komunikazioa eten egiten delako, eta gaizki garatzen delako. Horri buruzko ebidentziak gero eta gehiago dira, euskaraz eta munduko hizkuntza guztietan. Medikuen eta pazientearen arteko hizkuntza komunikazioa ez bada bera, komunikazio hori ez da egokia, arretari kalte egiten dio. Eskubide kontuaz gain, kalitate kontua ere bada, bai eta **ziurtasun**⁵ kontua ere: ikusi da akatsak egiteko arriskua askoz handiagoa dela, eta gaizki tratatzeko aukera ere bai. Adibidez, MIR azterketa egin nahi baduzu, eta atzerritarra baldin bazara, nolabaiteko gaitelania maila duzula frogatu behar duzu,

bestela ezin zara aurkeztu. Logikoa da. Gauza da zergatik ez den hala izaten alderantzizko-etan edo beste hizkuntza batzuetan, natural-ki gainera. Halere, uste dut hau ere poliki-po-liko aldatzen ari dela.

Bai?

Bai. Baina prestigio borroka dago kon-
tu honetan, eta politikaren mundua ere
hor dabil: irakaskuntzaren gerra galdu
egin zuten, eta orain euskara inork ez du
dudan jartzen. Horrexegatik prestigioaren
borroka: nik euskara bigarren mailako hiz-
kuntza gisa jarri nahi badut, baserriar ez-
jakinen hizkuntza balitz bezala, baztertu,
non dago prestigioaren borroka? Osasun-
gintzan. Horregatik, adibidea ez da kasua-
litatea.

Halako esaldia entzuten duzunean, “Me- diku euskalduna ala...”, zer pasatzen zai- zu burutik?

Ikaragarri haserretzen naiz, alde askota-
tik. Batez ere, iradokitzen duelako mediku
euskaldunok txarrak garela, baina badakigu
ez garela halakoak. Bigarrenik, oximorona
delako, berez. Hau da, mediku onak pazien-
tearen hizkuntza menderatu beharra dau-
ka, munduko hizkuntza guztiei dagokienez.
Hori ez diogu hemen bakarrik, nazioarteko
toki guztietan dago onartuta. Hemen zer-
gatik ez? Horrez gain, ezin da ezjakintasun-
naren apologia egin: nire ezjakintasuna
ezin dut saldu gauza ona balitz bezala.
Bada, kasu batzuetan, hori egin da, eta asta-
keria hutsa da. Ez badakit, hutsunea onartu
beharko dut, eta betetzen saiatu. Askoz lo-
gikoagoa litzateke.

Hobera egin al du euskararen erabilerak Osakidetzan?

Bai, bai. Nik ezagutu nuenean (1992an
hasi nintzen karrera ikasten), hau mundu guz-
tiz erdalduna zen, eta ikaragarri aldatzen ari
da, pixkanaka. Asko dugu egiteko, dudarik
gabe, baina profesional euskaldunak gero
eta gehiago gara, eta harremanak euskaraz
ere bai. Azken urratsa egitea falta zaigu:
euskara lan hizkuntza bihurtu. Beste alor as-
kotan gertatzen ari den bezala, historia kli-
nikoak euskaraz idatzi nahi ditugu, eta lana
euskaraz egin, ez ahozko komunikazioan
bakarrik. Bidea egiten ari da, baina eskatuko
nieke erabiltzaile guztiei laguntzeko bide
horretan. Hau da, faborez euskaraz egiteko
eta hala egin diezaieten eskatzeko. Norbait
gaizki datorrenean ez gara hasiko “Baina...”,
ez da harrotzeko unea; hala ere, aurreneko
euskara eskaera, behintzat, egin dezatela,
presioa eragiteko.

Heriotzaren eta bizitzaren arteko muga ospitaleko beste inon baino meheagoa izango da ZIUn, eta egoera gogorrek egunero bizi izango dituzue. Nolako da zure egunerokoa? Hau da, nola erama- ten da hori?

Emaizaren kontzeptua pixka bat al-
dentzen ikasten dugu. Nik ahalik eta profe-
sional onena izan behar dut, ahalik eta on-
doena prestatua dagoena, eta lana ahalik

1. **Zaurgarri:** *vulnerable (es), vulnérable (fr).*

2. **Beilatoki:** *tanatorio (es), funérarium (fr).*

3. **Ehortzi:** *lurperatu.*

4. **Gizatiar:** *humano, -a (es), humain, -e (fr).*

“Badago joera orokorra
osasungintzan, eta batez
ere zainketa intentsiboen
munduan, gizatiarrago
bihurtzeko; nik neuk
bertsoterapiak egingo
nituzke”

“Ez ditut medikuei
buruzko telesailak
ikusten, gehienak
errealitatetik oso urruti
daudelako”

eta ondoena egiten duena. Baina emaitza
ez da halakoa: nik ez dut inor salbatzen, eta
niregatik ez da inor hiltzen. Nik lana ahalik
eta ondoena egin behar dut, eta emaitzak
izan behar du, noski, ahalik eta onena. Baina
ezin dut egun batean goian egon eta hu-
rrangoan behean; hori ezinezkoa da. Bizitza-
ren gaineko ikuspuntua aldatu egiten dizu:
heriotza hor dago, alde horretatik denok
gara **zaurgarriak**¹ edo ahulak, eta beste
gauza batzuk estimatzen ikasten duzu.

ZIUn lehen aldiz sartu zen Felix eta oraingoa, oso ezberdinak dira?

Ez oso, baina izan ditu bilakaera eta al-
daketa, bai. Batez ere, ez da hain dogmati-
koa, eta pertsonenganako hurbiltasuna
gero eta gehiago estimatzen du.

Beraz, gero eta latzagoak egingo zaizki- zu lanean ikusten dituzun egoerak.

Bai, baina bizitzaren zatitzat jotzen ditu-
dalako ere bai. Esaten dute, adineko lanki-
deek ere esaten dute, egoerak gero eta go-
gorragoak egiten direla, haiek ere bizi izan
dutela hori: 30 urterekin hasi zirenean bai-
no gogorragoa egiten zaie orain, 60 urtere-
kin, hori guztia eramatea, kontrakoa pentsa
badaiteke ere. Dena den, naturaltasunez-
edo begiratzen diezu: hau bizitzaren zati
bat da. Denok gaude edozein unetan ho-
rrelako gauza bat jasateko arriskuan edo
egoeran; arriskuan baino, egoeran, eta bi-
zitzaren zati bat da. Horretan laguntzea gauza
ederra da.



Heriotza tabua al da oraindik?

Bai, neurri handi batean; gainera, duela 100 urte baino tabu handiagoa, dudarik gabe. Gure aitona-amonen belaunaldiek gorpuak etxean izaten zituzten, **beilatokia**² etxea bera izaten zen. Gaur egun, hori ez dugu onartu ere egiten ia. Gainera, beilatokiak hirigunetik urrundu ditugu, bisita motzak egiten dira, ahalik eta azkarrena **ehorzen**³ da, edo erre, edo dena delakoa, eta ahaztu. Tabu bihurtu dugu, eta nik uste dut hori ez dela naturala, ez eta egokia ere. Bizitzaren zati bat da, eta naturaltasun handiagoz bizi beharko genuke.

Bertsotan ere aritzen zara, eta Zarauzko Motxian bertso eskolako kidea zara. Zer ematen dizu bertsoak?

Bertsotan egiten bakarrik ikasi nuen, eta plazan berandu sartu nintzen, karrera dagoeneko amaituta, eta horretarako asmorik gabe, gainera. Niretzat, bertsoa da hieroglifikoa, puzzlea edo gurutzegramak osatutakoan sortzen den plazer bera ematen dizun jolasa. Hau da, niretzat ariketa mentala da; piezak osatzeaz gain, zeure burua adierazten duzu, barrena askatzen duzu. Ariketa horrek barrenak lasaitzen dizkit, nolabait esatearren, nire sentimenduak adierazteko bide bat izateak askatu egiten nau. Zarautzen bertso eskola sortu zutela esan zidatenean, izena eman nuen, ongi pasatzeko besterik ez. Alegia, ez nuen inolako asmorik txapelketetan parte hartzeko eta plazetan kantatzeko. Hasi, kantatu, kantatu... baina oraindik ere ez ditut urtean 10 plaza egingo. Oso gutxi, behin ere ez ditut gehiago egin, baina behin ere ez dut bilatu.

Hortaz, terapeutikoa al da bertsotan aritzea?

Niretzat bai, dudarik gabe.

Eta pazienteentzat bertsoak entzutea terapeutikoa litzateke?

Bai, ziur. Gaur egun, badago joera orokorra osasungintzan, eta batez ere zainketa



Kolkotik

Biharko egunkarian irakurri nahiko zenukeen albistea?

Gaur, badugula koronabirusaren aurkako txertoa. Bestela, letra txikia leitzeko gaitasun handiagoa daukagula, hainbeste titularri begira egon gabe.

Larunbat gau baterako plan onena?

45 urte eta bi haur ditudan honetan, familiarekin afaltzera joan eta denok une goxo bat pasatzea. Duela urte batzuk... beste gauza bat erantzungo nizun.

Zer ez da falta inoiz zure hozoailuan?

Esnea.

Zer ikusten duzu ispiluaren aurrean jartzen zarenarean?

Kopeta atzeraka egiten ari zaion pertsona bat, baina irribarreari eusten diona.

Zerk ematen dizu beldurra?

Gauza gutxi. Errespetua gauza askok, eta beldurra pertsonaren eromenak, batez ere: psikosi kolektiboak, elkar erotzeko gure ahalmenak.

Zerk alaitzen dizu eguna? Irribarre batek, askotan, edo elkarri laguntzeko keinu batek.

Zerk ateratzen zaitu zeure onetik?

Berekoikeriak, gehienbat, nork bere burua baino ez izatea kontuan.

Zerk ematen dizu lotsa?

Konturatu gabe hanka sartzeak eta gero konturatzeak.

Bizitzako plazer txiki bat?

Txuleta puska bat jatea.

Zer da arrakasta zuretzat?

Zeu izanez zeure buruarekin konforme bizitzea.

Bertsotan, txapelketa ala edozein herriko plaza?

Dudarik gabe, edozein herriko plaza.

Medikuei buruzko telesailak gustuko al dituzu?

Ez, eta ez ditut ikusten, gehienak errealitatetik oso urruti daudelako.

Bi arrazoi euskara ikasteko?

Bat: mundua ikusteko bestelako ikuspuntua da. Bi, eta batik bat: jende asko ezagutzeko aukera emango dizu, eta pertsona horiekin komunikazio naturala izateko bidea.

Labur esanda, nolakoa da Felix Zubia?

Ufa! Ez dakit! Ahalik eta ondoena bizitzen saiatzen den pertsona, nahiz eta ez asmatu.

intentsiboen munduan, **gizatiarrago**⁴

bihurtzeko. Batzuek musikoterapiak eta horrelako gauzak egiten dituzte; nik neuk, eta benetan diot, bertsoterapiak egingo nituzke.

Inoiz egin al diozu gaixoren bati?

Askok kontziente daukagu, eta behin baino gehiagotan kantatu dut. Batzuk ez dira hemen kontatzekoak, baina memento

oso politik

ere izaten dira. Politenetako bat izan zen urtebetetze eguna zuen gaixo batena: "Hementxe natxiok, nire urtebetetzean eta ospatu ezinda..." Zer nahiko zukeen galdetu nion, eta bertsozalea zela esan zidan. Orduan, nik: "A, bai? Nik bertso bat kantatuko banizu?" Eta kantatu nion, eta hark, gainera, erantzun egin zidan. Ederra izan zen.



Peter LEWICKI/UNSPLASH

Izurritearen kolpe latzari sormenak erantzun

Beste hainbat sektoretan bezala, gogor jo du COVID-19aren izurriteak ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen mundua. Hari aurre egiteko konfinamenduak antzokiak eta aretoak itxi, eta bertan behera utzi edota atzeratu du emanaldi, grabazio, estreinaldi, jaialdi eta ekitaldi oro. Nolanahi ere, sektoreak geldialdiari erantzun dio, eta makina bat lan zabaldu du sareen bidez, etxean sartuta gauden guztiok ikusi eta goza ditzagun. Gainera, hedabide, ekoiztetxe, elkarte, erakunde eta bestek ere jendearen eskura paratu dituzte hainbat eduki. Guztiak hemen zerrendatzea ezinezkoa da, baina baliabide horien guztien bilduma txukun askoak ere egin dituzte hainbatek, aldizkari honen *Klikatuz* atalean **leitu**¹ ahal izango duzue. Ikus-entzunezkoei dagokienez, *Berria* kazetaren Berria Aretoa eta Berria Telebistaren kanalak; *Argia* astekariaren Multimedia kanala; Kimuak plataformaren film laburrak; Eusko Jaurilaritzaren eLiburutegiaren film funtsa; *Bertsoa.eus* atariak dituen bertso

saioak; *Ganbara.eus* guneak bildutako film luze eta laburrak; EiTbK sarean eskaintzen dituen euskarazko filmak eta saioak; Hamai-ka telebistaren programak; Kanalduderen saioak; Euskadiko Filmtategiaren funtsen zati bat... Sortzaileek ere, **beren kabuz**², hainbat lan sareratu dituzte egun bereziotan, hala nola, Fermin Muguruzak edota Aitor Merinok. Antzerkian ere asko dira beren sorkuntzak jendearen eskura paratu dituztenak: Tartean Teatroa taldeak eta Artedrama konpainiak hainbat antzezlan jarri dituzte sarean, esaterako. Horretaz guztiaz gain, norbanakoak zabaltzen ari diren lanak goza daitezke sareetan, jakina, eta egoerara egokitu diren ekimenak ere badira: 13. Huhezinemaldia film laburren jaialdia, adibidez, online egin behar izan zuten. Gasteizko Baratz arotoak antolatutako Zurrumbilo jaialdia ere, apirilaren hasieran egingo zen baina azarora atzeratu dute. Halere, Euskal Arte Eszenikoen Topaketa Birtuala egingen dute apirilaren 4an.

LABURREAN

KORONABIRUSAREN krisiak eragindako konfinamendua arintzearen, Ramon Zabalegi eta Laura Morin artistek 1. Kortovirus Filmfesta film laburren jaialdia antolatu dute. *Etxean bezala inon* ez leloa hizpide, edozeinek parte har dezake. Parte hartzaileek nahi adina lan aurkez ditzakete, betiere 2 minutuko iraupena gainditu gabe. Lanak coronafilms@2020mail.com helbidera igorri behar dira, eta haiek aurkezteko azken eguna apirilaren 5a izango da. Ondoren, sare sozialetan partekatuko dituzte, eta hiru profesionalek osatuko dute epaimahaia. Irabazleak 2. Kortovirus Filmfesteko gai nagusia aukeratu ahal izango du.



ETXEAN GRABATUTAKO film laburren lehia-keta antolatu du Hiruka Komunikazio Taldeak, konfinamendu sasoian etxean garen sormena **sustatzearren**³. Itxialdiak iraun bitartean egingo dute, epe finkorik gabe, astero: ostegunetan amaituko da lanak balditzeko epea. Gaia askea izan arren, egileek zenbait baldintza bete beharko dituzte: gehienez, 5 minutuko iraupena; elkarriketarik izanez gero, euskaraz izatea; komuneko paperak agertu beharko du, eta debekatua egonen da koronabirus hitza agertzea. Lanak foto@hiruka.eus helbidera bidali behar dira, eta astero bi sari banatuko dituzte. Izan ere, bideoak *Hirukaren* atarian (hiruka.eus) jarriko dituzte ikusgai.

1. Leitu: irakurri.

2. -nor(k) bere kabuz: bakarrik, inoren laguntzarik gabe.

3. Sustatzearren: bultzatzeko helburuz.

4. Iruzkina: komentario.

5. Ur-hegazkina: hidroavión (es), hydravion (fr).

6. Iltzatu: clavar (es), clouer (fr).



Porco Rosso

■ **ZUZENDARIA:** HAYAO MIYAZAKI. **GIDOIA:** HAYAO MIYAZAKI. **ANIMAZIOA:** JAPONIA, 1992.

Oharra: ezohiko egoeran, ezohiko film aukeraketa. Konfinamendu garaian zinema aretoak itxita egonik, ikuskizunen saileko film bat aukeratzea, zentzugabea izateaz gain, adarjotzetzat ere har daiteke. Beraz, etxean ikusteko film baten **iruzkin**⁴ edo sasi-iruzkina duzue honakoa. Etxeko heldu zein haurrentzat egokia, eta Internetek etxean eskaintzen dizkigun aukerei esker erraz eskuratzekoa.

Istorioa: Italian, bi mundu gerren artean, sorginkeria baten ondorioz txerri bilakaturako Porco, **ur-hegazkin**⁵ pilotu trebea, Adriatiko itsasoan aritzen da, itsasontzei eraso egiten dieten aireko piratak harra-


patzearen truke ordainsariak jasoz. Piratak, baina, nazkatuta dabiltza Porcorekin...

Onena: beharbada, ez da Miyazaki handiaren filmik onena, baina gogoratuenetakoa, ziurrenik, bai. Miyazakiren lanetan ohikoa denez, ederra du animazioa, zaindua, gozagarria. Istorioak ere, historia eta politika kontuak abentura eta dramarekin uztartuta, erraz kateatzen gaitu, Porco pertsonaia misteriotso eta erakargarriari segika. Helduak eta haurrak gustura utziko ditu lanak, pertsonaia nagusia oroimenean **iltzatatuta**⁶.

Esaldia: "Nahiago txerria izan faxista baino."

EÑAUT MITXELENA

BUTAKATXOAN



AITOR MERINO

AKTOREA

ETA ZUZENDARIA

Gustuko duzun filma? Bat bakarrik esan behar badut, *Dersu Uzala*.

Zuzendari bat? Stanley Kubrick.

Askotan ikusi duzun filma? *Revenge of the Nerds*. Oso txarra da, baina txikitan barrez lehertzen ginen, behin eta berriro.

Osorik ikusi gabe utzi zenuen... Mordoa. *El Laberinto del Fauno*, adibidez.

Lagun bati ez zenioke inoiz gomendatuko... Christopher Nolanen edozein pelikula.

Gustuko duzun aktore bat? Bi esango ditut: Gena Rowlands eta Jack Lemmon.

Zinematik atera eta gero... Lagunekin, ahal bada, solasaldi ona egin.

Ikusi duzun azken filma? *Okja*.

Eta ikusi nahi duzuna? Maider Fernández Iriarteren *Las Letras de Jordi*. Itxialdia hasi zenean estreinatu behar zen, eta atzeratu egin da.

ARANTZAko ATERPEa



Aterpea:
115 litera (15 gelatan)
12 plaza (4 gela bikoitz)
3 jangela - 2 jolasparke

Taberna (ekitaldiak - kontzertuak)
Jatetxea (menua, karta...)

asteburuak
zubiak
taldeak
natura
ikastaroak
ekitaldiak
mintegiak
irteera gidatuak
zuhaitz parkea
espeleologia...



erreserbak:
WWW.ARANTZA.NET
948 634 179





Galder IZAGIRRE

Liher: 'Hemen herensugeak daude'

Liher taldeak hirugarren lana kaleratu du, gai bakar baten inguruan: genero indarkeria. Transmedia produktua da, musikaz gain Matu Santamariaren ilustrazioak, narrazioak eta ikus-entzunezko materiala (bideoklipak) biltzen baititu. "Nola erreakzionatuko zenuke **bortxatua**¹ izango bazina?" galdera abiapuntu, emakume gazte bat protagonista duen hamalau kapituluko fikziozko istorioa osatu du taldeak, hamalau abestiren bidez maitasunaz, bortizkeriaz, emakumearen bakarda-

deaz... hitz egiteko. Martxoaren 6an hasi zuten lan berria aurkezteko Tour 2020 bira, baina hilaren erdi aldera eten behar izan zuten, European zebiltzala, lotuta zituzten sei kontzertuetatik lau eskaini ondoren. Koronabirusak eragindako geldialdia bukatu ondoren jarraitu beharko, hil honetakoak ere bertan behera geratu baitira. Gero, ikusi egin behar zer gertatzen den maiatzerako (Galizian, Katalunian, Asturiasen eta Madrilan) eta ekainerako lotuta dituzten kontzertuekin.

Asier PEREZ

PATXUKO NICE taldeak laugarren diskoa kaleratu du: *Quim-en marrazkia* (Baga-Biga). Hamar urte igaro dira Sergio Ordoñez *Patxukok* eta Jon Mari Beasainek Quim Moya pintore katalana agertokira gonbidatu zutenetik, koadroa zuzenean margo zezan haiek musika jotzen zuten bitartean, eta haren margolan bat da lan berriaren azala ere. Oraingo honetan, zortzi abesti batu dituzte diskoan, hainbat genero nahasita: pop leuna, rocka, reggaea, soula, funka... Grabazioa eta nahasketak Pello Gorrotxategik egin ditu, Ereñozuko Aieka estudioan. Masterizazioa Jonan Ordorikak landu du, Mamia estudioetan. Eneko Fernandezek (bateria), Ibai Larralde (gitarra) eta Alejandro Terronesek (baxua) osatzen dute taldea.

KASKOAK KASKOAN



IBON RG

Amaitu berri den 2019an argitaratutako hiru lan izan ditut nire kaskoetan.

Junes Chuburu - Kantari

Zuberoako kantagintzaren entziklopedia biltzen du Junes Chubururen ezterriak. Zorionez, garaiz heldu zaigu santagraztarraren bakarkako lehenengo grabaketa hau, egunen batean **damurik**² izan ez dezagun. Kantaera berezi baten jabe eta lekuko. Zorte on opa dizut, entzuteko gogoia piztu badizut: alferrik bilatuko duzu ohiko plataformetan edota gure komunikabideetan.

Verde Prato - Verde Prato

Ana Arsuagaren hau ere tolosarraren bakarkako lehen grabaketa da. Herri musika eta poparen lekukotza hartu eta bere uztako ametsezko melodiak sortu ditu, zein baino zein ederragoa. Verde Pratoren ahots hari misterioitsuak hegan egiten du teklatuaren atmosfera **ketsuan**³ zehar.

FAIA - Ao cabo Leirin

Kantutegi tradizionalari heltzeko beste molde bat dakar FAIA galiziarrek lan laburregi honetan. Doinu bakoitza leku berezi batean grabatu du (taberna batean, mendian, armairu baten barruan...). Espazio horien oihartzuna da kantuen lagungarri, babes eta soineko, eta Faia Diaz Novok sentiberatasun bereziz kantatzen ditu.

1. Bortxatu: violar (es), violer (fr).

2. Damu: arrepentimiento (es), regret (fr).

3. Ketsu: ke handia duena.

ATEAK

Saioa

Egilea editore, 2019

Pop eta folk generoko ha-
maika abestiz osatu du mu-
sikari gipuzkoarrak bere
laugarren diskoa. Sei urteko
isiltasunaren ondoren kale-
ratua, Joseba Irazokik eta Fe-
lix Buffek kolaboratu dute lan
honetan, moldaketa batzuk
eginez. Zalantzak, beldurra...
ageri dira hitzetan, eta tonu
gehienbat iluna. Modu digi-
talean baino ez du kaleratu
lan berria, ahotsa eta gitarra
batera grabatuta, oso modu
soilean¹, Iñaki de Lucas soi-
nu teknikariaren laguntzaz.
Interneten gozatu beharre-
ko diskoa, Saioak ez baitu
jendaurreko kontzerturik es-
kainiko, beldur eszenikoa
duelako.



TRANPALDO

Joseba Tapia

Zakurraren biolina, 2019

Hogei urte pasatu dira Tapiak
bakarkako ibilbideari ekin
zionetik, eta horrekin batera
dator disko hau, ibilbide ho-
rretako zortzigarrena. Hamar
abesti sartu dira bertan, mol-
daketen aldeko apustua
eginda; hala, Leturiarekin ibili
zen garaiko kanta batzuk eta
bakarkako ibilaldiko beste
batzuk aukeratu ditu lan be-
rrirako, eta zuzenean grabatu
du diskoa. Taldea osatu du Ta-
piak: berak trikitia dantzatzan
du, baina lagun ditu alboan
tronpeta, saxofoia, tronboia,
ahotsak, organoa, baxua eta
bateria. Emaizta, musika he-
rrikoia eta modernoa aldi be-
rean.

DISKO GOGOKOENAK



GAZTAROKO EROKERIA
BAT BAINO GEHIAGO

Fly Shit / Managaitz

DDT Banaketak

In My Heart 2019

BIZITZA OSORAKO KONPROMISOA

GOTZON HERMOSILLA

Askotan entzun izan dugu hardcore punka eta hari lotutako fi-
losofia (autoritarismoaren kontrako jarrera, gauzak norberak
egiteko gogoia eta abar) gaztaroko kontuak direla, denborare-
kin erraz joaten direnak. Gaur egungo gazteek entzuten dituz-
ten musika estiloak eta hardcore kontzertuetako entzuleen
batez besteko adina kontuan hartuta, argi dago topiko horrek
ez duela oinarri handirik. Izan ere, Fly Shit eta Managaitz talde-
ek, besteak beste, hautu hori "gaztaroko erokeria bat baino
gehiago" dela erakusten digute, batez ere, biek elkarrekin pla-
zaraturiko disko honen izenburuan dioten bezala. Fly Shit kla-
sikoak dira euskal hardcorearen eszenan, ia 25 urte eman dute
horretan, eta erritmo bihurriak, riff **itsaskorrak**² eta abestiei
buelta pare bat ematea dituzte gogoko. Managaitz talde gaz-
teagoa da, baina taldekideak ez dira hasiberriak, eta hardcore
garbi, azkar eta melodikoa egiten dute.

1. **Soil**: simple.

2. **Itsaskor**: pegadizo, -a (es), accrocheur (fr).





Bainuontziaren
ordez dutxa 8
ordutan.

Kalitate gorena
Euskal Herrian aitxindari.

DONOSTIA | 943 444 603 BILBO | 946 440 304 BARAKALDO | 946 477 047 GASTEIZ | 945 102 536 IRUÑA | 948 102 727





111 Akademiaren Saria 2019, norentzat?

Karmele Jaioren *Aitaren etxea*, Amets Arza-Ilusen eta Ibrahima Balderen *Miñan*, Uxue Alberdiren *Kontrako ezarririk*, Bernardo Atxagaren *Etxeak eta hilobiak* eta Itxaro Bordaen *Susmaezinak* lanen artean aukeratu berri dute akademiakideek norentzat izango den 2019ko 111 Akademiaren Saria. Halere, Akademiak apirilaren bukaerara aldera emango du ezagutzera irabazlearen izena. Euskal literaturak iaz utzitako uzta zabaletik bost horiek izan dira urteko libururik gogo-koena aukeratzeko bidean lehen bozketa

txanda (otsailaren hasieratik martxoaren 5era bitartean, 95 akademiakidek eman zuten botoa) gainditu eta bigarrenera (martxoaren 31n bukatu zen bozka emateko epea) igaro zirenak. Bigarren buelta horretan, libururen batek jasotako botoen % 40 lortuz gero, 111 Akademiak huraxe izendatuko luke 2019ko saridun; kopuru horretara iristen den lanik egon ezean, aldiz, bi bozkatuenak joango lirateke finalera. Esan bezala, baina, hori guztia nola geratu den ez dugu jakin-go hil honen amaiera arte.



FOKU

rraren artean badute lotura, nolabait, pertsonaien bidez: umetako jolas ez beti inuzenteak, norbere identitate sexualaren aurkikuntza, jaietako parrandak, oso lagunak ez diren adiskideak, politikak **etsaitzen**¹ dituenak... Umorearen eta ironiaren azpian ezkututzen dira mamia eta sakontasuna.

TXORIA NINTZELA ipuin bilduma kaleratu du Xabier Etxeberriak, Elkar argitaletxearekin. Lehenengoa da bere literatur ibilbidean, orain arte lau eleberri idatzi baititu bakarka, eta beste lau anaia Martinekin elkarlanean. 1980tik 1990era doan hamarkadan, Euskal Herriko edozein herri ertainetan, haurtzarotik nerabezarora eta geroago gaztarora igarotzen den neska-mutil taldea da protagonista. Zazpi ipuin dira, istorio independenteak, baina elkarren artean

IDAZLEAREN KUTTUNENAK



UNAI ORMAETXEA

Baltzolako ipuinak - Rafa Ugalde (Ibaizabal 2017)

Liburu honen kokapena bereziki interesgarria egin zait, guztiz ezaguna ez den ondarean baitago: Baltzolako koba eta inguruak... Historia eta natura literatura bihurtzen ditu Rafak, eta liburuaren sarrera maisulana iruditzen zait. Ederra da nola marrazten duen ama lurraren **ernaltzea**², eta zelan deskribatzen dituen naturaren elementuak.

Espedizioa; mendi ororen pisua

Juanra Madariaga (Txalaparta 2015)

Aberastasun ikaragarriko liburu, dena biltzen baitu: abentura, mendia, intimitatea, literatura... liburu betea da, biribila, miragarria. Shisha Pangmara egindako espedizioa abiapuntu, lasai hitz egiten du honetaz eta hartaz, modu ludiko eta jostagarrian. Esango nuke hau xe dela Juanraren liburu bereena.

Tretatxu, lapurren gobernadorea

Hector Ortega (Txertoa, 2018)

XVIII. mendeko bandolero, gaizkile eta heroien istorioa dakar liburu mardul honek, eta, hain zuzen, horrek egiten du berezi: gaiak. Zaila da halakorik aurkitzea, eta Hectorrek aparteko dokumentazio lana egin du, guk ondoren polito-polito gureganatzeko.

1. **Etsaitu:** *enemistar(se) (es), devenir ennemi (fr).*
2. **Ernaldu:** *fecundar (es), féconder (fr).*
3. **Alegiazko:** *imaginario, -a (es), imaginaire (fr).*
4. **Erruz:** *barra-barra, nonahi.*
5. **Inguruabar:** *circunstancia (es), circonstance (fr).*
6. **Iradoiki:** *sugerir (es), suggérer (fr).*



ANDREZAHARRAREN MANIFESTUA
Mari Luz Esteban
Pamiela, 2019

"Manifestu bat da zure garaiazen eta gizartearen Arrazoiaren aurka idaztea, leiho bat zabaltzea etorkizunera". Horrela, baina poesia eran, definitu du egileak manifestua; eta poemaz poema idatzi du zahartzaroaz, kezka pertsonala oinarrian, baina, batez ere, kezka sozial eta politikoa. Izan ere, egilearen ustez, "gogoeta gutxi dago gutxieneko kontzientzia feminista eta soziala dugun emakumeon zahartze prozesuaz". Hala, hainbat gai jorratu ditu: sexualitatea, zaintza, erretiroa hartzea...



JENTILAK. EUSKAL MITOLOGIAREN AZKEN SEKRETUA
Aritza Bergara
Eguzkilo Liburuak, 2019

Joseba Etxebarrieta EHuko Antropologia Saileko irakaslea lantalde batean sartuko da, zeinaren asmoa izango baita gertakari ilun bat argitzea: idazki batean dago ezkutaturik, eta Aita Barandiaran bera ere isilpean gordetzen saiatu zen. Antzinako izkribu horretan, jentilak nola galdu ziren azaltzen da. Lantaldeak, teknologiarik aurreratuen erabilita, jentilen "alegiak" aka-bera gertatu zen lekua topatuko du.

Hik ez dakik zer den beldurra

KARLOS LINAZASORO
EREIN, 2019

Karlos Linazasororen azken ipuin bilduman, **erruz⁴** ikusiko dugu gaizkia, izenburuko beldur horren ondoriozko gaizkia, hain zuzen ere, baina ez horrenbeste gaiztakeria. Izan ere, liburua osatzen duten 18 ipuinetako protagonistek delitu gogorak egin dituzte, baina haiengan ez da gaiztakeriarik antzematen. Gehien-gehienak pertsona arruntak dira, zu eta ni bezalakoxeak, eta delitua eginarazi dieten **inguruabarrekin⁵** zuritzen dute krimena: aita tratatu txar emalea hiltzen duena gaizkilea al da? Gaiztoa al da?

Bada, poetikotasun latzez idatzitako ipuinotan, gizadiaren gogo hainbat aldiz astindu duten galderak topatuko ditugu, deserosoak askotan: Zer da gaizkia? Nondik datorkigu? Berezkoa dugu ala inguruak egiten gaitu gaizkile/gaizto? Zer egin gaizkileekin? Guztiak maila berean daude? Hala, protagonista kartzelan dagoela **iradokitzen⁶** duten elkarriketek ematen diote hasiera



ipuin askori, eta irakurleak hasiera-hasieratik daki harrapatu egingo dutela. Haatik, horrek ez du irakurketa zapuzten: pertsona arrunt batek beste bat zergatik eta nola hiltzen duen jakitea da testuen muina, edota haien krimena nola zuritzen duten ikustea (erruduntasuna ere sumatuko dugu zenbaitetan).

Poesia ukitudun ipuinak ekarri dizkigu oraingoan Linazasorok, gure baitatik igaro, iragazi eta, topatu dezakegunaren beldurrez, kanpora jaurtitzekoak.

ALAITZ ANDREU

Egin zaitez harpidedun!

IFK/NA..... CIF/DNI	Izen-abizenak..... Nombre y apellidos
Helbidea..... Dirección	
Posta Kodea..... Código postal	Herria.....
Herrialdea..... Provincia	Telefono-zenbakia..... Localidad
Ordaintzeko era..... Forma de pago	Sinadura..... Firma
Banku bidez..... Domiciliación bancaria	(20 digitu)
Bankuaren izena..... Nombre del banco	

Urte osoko harpidetza*

Hego Euskal Herria eta Espainia: **29 euro**
Ipar Euskal Herria: **36 euro**
Europa: **50,5 euro**
Europatik kanpo: **83 euro**

Informazioa gure fitxategian gordeko da. Informazio hori isilpekoa da. Interesdunak ezaba edo alda dezake. Datuen kontrolak eta trataerak Norbanakoen Datuak Babesteko Lege Organikoari men egin behar diote. La información será guardada en nuestro fichero. Dicha información es confidencial. El interesado puede modificar o borrarla. El control y tratamiento de los datos deben cumplir la Ley Orgánica de Protección de Datos Individuales.

* Kontrakorik agindu ez ezean, harpidetza urtero berrituko da. En caso de no notificar lo contrario, la suscripción se renovará cada año.



NEGOZIO ETA PROIEKTU txikiei digitalizatzeko lagunduko die PuntuEUS Fundazioak, *Ireki ate berri bat* egitasmoaren bitartez. Zehazki, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz beren jardueraren atea itxi behar izan dutenei eskainiko dizkie baliabideak, “ate digitala” zabaltzen laguntzeko. Hala, jarduerak edo proiektuak digitalizatzeko beharrezko bitartekoak eskainiko zaizkie, dohainik, webgunerik ez duten negozio eta profesionalak: .eus domeinua eta zerbitzaria kosturik gabe lehen urtean. .eus domeinu izena eskura jarrita, online presentzia indartzeko aukera izango dute eskatzaileek, hainbat tresnari esker. PuntuEUS Fundazioaren www.domeinuak.eus webgunean jaso dituzte egin beharreko urratsak.

Etxean egoteko baliabide ugari sarean

Dagoeneko ez dago esan beharrik ere: COVID-19aren ondorioz ezarritako konfinamenduan, Internet ezinbesteko tresna bilakatu da. Euskara ikasleok ere ondotox dakizue, sarearen bitartez jarrai dezakezuelako eskolak jasotzen, edota teknologiari esker ari zaretelako mintzapraktikei eusten. Beste baliabide ugari ere abiarazi dituzte askotariko elkarte, erakunde, talde, hedabide eta norbanakoek: ikus-entzunezkoak, haurrentzako kontuak, irakurgaiak, liburutegi publikoen eskaintza, lehiaketak eta desafioak, jokoak, **soinketa**¹... denetik, denontzat eta euskaraz. Guztiak lerro gutxi hauetan batzea ezinezkoa denez, bilket

lana egin duten hiru gune aipatuko ditugu hemen, eskaintza zabala jasotzen baitute: *Berriaren* webgunearen (www.berria.eus) Zer egin etxean atala, UEMAren (www.uema.eus) *Etxean goxo egoteko euskarazko baliabideen zerrenda* eta Eusko Jaurilaritzaren Kulturklik guneko (www.kulturklik.euskadi.eus) *Euskarazko kultur baliabideak, etxean gozatzeko*. Lotura mordera jaso dute (asko hiruretan ageri dira), denak oso baliagarriak. Era berean, beste ekimen batzuk oraindik ez daude jasota, baina sarean topa daitezke. Beraz, segi **arakatzen**² eta euskaraz eskaintzen dituen baliabideak erabiltzen edota sortzen.



TTAP aldizkari digitalari, irakurri, “*ikusi, ukitu eta entzun*” daitekeen astekariari, forma eta edukiak berritu dizkiote. Edukiari dagokionez, orain artean Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan plazaratzen zituzten argitalpenak bakarrean batu dituzte, eta gehiago erantsi dizkiote. Diseinuari dagokionez, erabilgarriagoa eta irakurterazagoa da orain. Horrez gain, euskarri digitalerako propio sortutako *Gorabeherak* ikus-entzunezko umorezko saila eskaintzen hasi dira, hama-bostean behin kapitulu bat sareratuta. Doakoa, <https://ttap.eus/> helbidean eskura daiteke Ttap, Android zein iOS gailuetarako.



ADITU hizketa ezagutzaile³ elebiduna sareratu du Elhuyarrek, aditu.eus webgunean, doan probatzeko moduan. Euskarazko zein gaztelaniazko audio eta bideoak automatikoki transkribatu eta azpigitulatu dituen lehen euskarazko plataforma da Aditu, eta

aurrez grabatutako fitxategiekin nahiz zuzenekoekin balia daiteke: audio eta bideoen estekak... baita **aldibereko**⁴ transkripzioak ere. Transkripzioen testuak ez ezik, azpigituluen fitxategiak ere sortzen ditu, VTT eta SRT formatuetan. Editatzeko aukera ere ematen du, Adituk sortutako transkripzioak eta azpigituluak eskuz zuzendu ahal izateko. Esan bezala Aditu.eus webgunean balia badaiteke ere, beste gune eta plataforma batzuetan txertatzeko aukera ere ematen du.

1. Soinketa: gimnasia.

2. Arakatu: *rebuscar* (es), *fouiller* (fr).

3. Hizketa ezagutzaile: *reconocedor del habla* (es), *système de reconnaissance vocale* (fr).

4. Aldibereko: *simultáneo, -a* (es), *simultané, -ée* (fr).

Barkatuko didazue, baina gaurkoan nostalgiko samar nator. Azken egu-notan (adinaren **ajeak**¹), etxeko lehen ordenagailu haiekin akordatu naiz, gaztetan izandakoekin; 80ko hamarkadako Spectrum, Amstrad, MSX, Commodore eta enparauekin. Gauza asko goitik behera aldatu dira etxeko informatikan garai haietatik, eta ez naiz ari bakarrik potentziaz, datuak gordetzeko ahalmenaz edo konektibitateaz...

Teknikoki, 80ko 'mikroordena-gailu' haiek erabat barregarriak ziren gaur egungoen aldean. 16 eta 256 kilobyte bitarteko RAM memoria, 8 kolore baino ez pantailan... Baina denek ere bazuten gauza bat, orduan munduko gauzarik naturalena zena, eta gaur egungo ordenagailuetan edo, kasurako, sakelako telefonoe-tan pentsaezina dena: programazio hizkuntza lengoaia oinarritzko softwarearen baitan. BASIC lengoaiaren hainbat bertsio eta aldaera erabil zitezkeen ordenagailu haietan guztietan.

Programazio hizkuntza hura programa osoak sortzeko edota aparte erositako jokoetan **aldaerak**²

sartzeko erabil zitekeen. Are gehiago: garai hartako informatika aldizkarietan, sarri argitaratzen ziren BASIC ikastaroak, edota norbere etxean osorik kopia eta nahi bezala eraldatzeko moduko programak. Gutxi-asko, arreta apur bat jarrita edozeinek egoki zezakeen ordenagailua berak nahi zuen edozer egin zezan.

BASIC hura eskoletan ere irakasten zen. Gogoan dut joko oso sinpleak programatu izana institutuan, eta etxean ere gauza askoz konplexuagoak, BASICen agindu multzo mugatua oinarri. Horrek makinak nola funtzionatzen duen ulertzen laguntzen zuen.

Espiritu sortzaile hura erabat galdu da gaur egungo ordenagailuetan: softwareari dagokionez, industriak kontsumitzaile huts nahi gaitu erabiltzaileok. Programazio lengoaiak aspaldi ez dira ordenagailuen oinarritzko softwarearen parte, eta **garatzaile**³ profesional edota hackerrentzat dira. Eskoletan, ez da irakasten, lehen BASIC edo LOGO irakasten ziren moduan. Makinak esaten digu guri zer egin, ez alderantziz.

Loturak, estekak, linkak

<https://labur.eus/logo>

Berrian, nire kezka antzekoa izan zuten duela urte batzuk. Luzexeago azaldu zuten nik hemen labur-labur aipatu dizuedana.

<https://twitter.com/bbcmicrobot/>

Twitterren, kontu bitxi hau sortu dute. BASIC lengoaiaz idatzitako programa bat bidaltzen badiozu, 80ko hamarkadako BBC Micro ordenagailu baten irudia, zure programa exekutatzen, itzuliko dizu. Kontuz, mendekotasuna sor dezake!

<https://eu.wikipedia.org/wiki/BASIC>

BASIC programazio lengoaia, Wikipedian.

1. Aje: *achaque (es), infirmité (fr).*

2. Aldaera: *variante (es), variante (fr).*

3. Garatzaile: *zerbait garatzen duen pertsona.*

Uxarte sagardotegia

Montorro auzoa, 6
Amorebieta (Bizkaia)



Euzko Sagardotegia
Sagardotegia
Sagardotegia

Euzko Sagardotegia
Sagardotegia
Sagardotegia

Tel. 946 308 815

www.uxarte.com

IRATIKO BOLI-DORREAN

By
Zaldi
Eroa



Udako
euskara ikastaroak eta
barnetegiak 2020



Uda hemen da,
AEK ere bai



**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**

ELISKARA-ESKOLAK
ELISKARAZ BIZITZEKO
AZTERKETAK PRESTATZEKO



**FAMILIA
BARNETEGIAK**

ELISKARA IKASTEKO
SOME-ALABEKIN
ELISKARAZ ARITZEKO



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK
Azterketak prestatzeko



**ONLINE
IKASTAROAK**

A1, A2, B1, B2, C1, C2

#PraktikatuetaBizi

Birusak #EzGaituMututuko

Erronkak

Eskulanak

Kirol probak

Euskal filmak

Jolasak

Mintzataldeak
online

Irratia

Garbiketa
trukoak

Sukaldean

#GERATUETXEAN